

# ARABAKO FORU ALDUNDIKO 2016KO OPOSIZIOEN GAITEGI OROKORREKO EDUKIAK.

## A1 (A) TALDEA

OHARRA: Testu bilketa hau Arabako Foru Aldundiko LABeko Atal Sindikalak landu du, A1 taldeko plazetarako, Oinarri Espezifikoek ezarritako eduki orokorren ikasketa errazte aldera. Materiala testu ofizialak abiapuntutzat harturik prestatu dugu; era berean, beharrezko egiaztapenak egin ditzazuen Aldundiko web orriko helbidea ematen dizuegu, bertan zehazten baita gaitegi ofiziala.

Dokumentu honetan ez daude gaitegi orokorreko testu guztiak (1-18 gaiak). Soilik 1, 2,4,5,6,7,8, 11 (ez osorik),12,13 eta 18 (ez osorik) gaitako testuak daude.

Gainontzeko gaietarako ez dago euskarazko testurik. IVAPera egin dugu kontsulta jakiteko asmoa ote duten lege hauek itzultzeko baina oraingoz ez dute erantzun.

[http://www.araba.eus/PortalEmpleo/EP\\_Convocatoria/FPEP3201convocatoriasOEP.asp](http://www.araba.eus/PortalEmpleo/EP_Convocatoria/FPEP3201convocatoriasOEP.asp)

**Arabako Foru Aldundiko LABeko atal sindikala**  
**sindicatolab@araba.eus**

## **1. GAIA. ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (I). OINARRIZKO ESKUBIDE ETA EGINBEHARRAK (10-55 ARTIKULUAK).**

### **1. TITULUA Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak**

#### **10. artikulua**

1.- Ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datzekion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoien eskubideei zor zaien begirunea.

2.- Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko, kontuan hartuko da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bai eta gai berberen inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak ere.

### **LEHENENGO KAPITULUA Espainiarrak eta atzerritarrak**

#### **11. artikulua**

1.- Espainiako naziotasuna legeak ezartzen duen eran eskuratu, gorde eta galtzen da.

2.- Sorterriz espainiarra denari ezin zaio bere naziotasuna kendu.

3.- Estatuak naziotasun bikoitzeko itunak egin ditzake Iberoamerikako herrieekin, eta Espainiarekin lotura berezia duten edo izan dutenekin. Nahiz eta herri horiek beren herritarrei elkarrekiko antzeko eskubiderik aitortu ez, espainiarrak bertako egin daitezke, sorterriko naziotasuna galdu gabe.

#### **12. artikulua.**

Espainiarrak adin nagusiko dira hemezortzi urte betetzean.

#### **13. artikulua.**

1.- Atzerritarrek titulu honek bermatzen dituen askatasun publikoak izango dituzte Espainian, itunek eta legeek ezartzen dutenaren arabera.

2.- Espainiarrak bakarrik izan daitezke 23. Artikuluan aitortzen diren eskubideen titularrak; hala ere, elkarrekikotasun-irizpideei men eginez, itun bidez edo lege bidez bestelakoa ezar daiteke udal hauteskundeetarako, sufragio aktiboari eta pasiboari dagokienez.

3.- Estradizioa itun edo lege bat betetzeko bakarrik gertatuko da, elkarrekikotasun-printzipioa aintzakotzat harturik. Delitu politikoak estradiziotik kanpo gelditzen dira, eta terrorismo-ekintzak ere ez dira halakotzat hartzen.

4.- Legeak ezarriko du beste herrietako herritarrek eta aberrigabeek nola erabil dezaketen asiloeskubidea Espainian.

## **BIGARREN KAPITULUA**

### **Eskubideak eta askatasunak**

#### **14. artikulua.**

Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.

## **LEHENENGO ATALA**

### **Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak**

#### **15. artikulua.**

Guztiek bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo apalesgarrikerik ere.

Heriotza-zigorra indarririk gabe geratzen da, zigorlege militarrek gerraldirako xeda dezaketenari kalterik egin gabe.

#### **16. artikulua.**

1.- Gizabanakoen eta giza taldeen ideologia-, erlijioeta kultu-askatasuna bermatzen da, eta beraien agerpenetan muga bat baino ez da izango, legeak babesten duen ordena publikoa jagotea.

2.- Ezin izango da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpenak egitera.

3.- Erlijio batek ere ez du izango estatu-izaerarik. Botere publikoek kontuan hartuko dituzte Espainiako gizartearen erlijio-sinesmenak, eta Eliza Katolikoarekin eta beste erlijioekin lankidetzaharremanak izango dituzte.

#### **17. artikulua.**

1.- Gizabanako guztiek askatasun eta segurtasunerako eskubidea dute. Inori ezin dakioke askatasunik ken, artikulua honetan ezarritakoa betetzen ez bada, eta legean agindutako kasuak eta baldintzak gertatzen ez badira.

2.- Aurreneurritzko atxilotzea ezin daiteke egitateak argitzeko ikerketek zenbat iraun behar eta hori baino luzeagoa izan; betiere, gehienez hirurogei eta hamabi ordu igaro ondoren, atxilotua askatua izango da, edo, bestela, agintaritzaren eskutik askatua izango da.

3.- Atxilotu guztiei lehenbailehen eta ulertzeko moduan jakinaraziko zaizkie beren eskubideak eta atxilotzeko arrazoiak; atxilotuok ezin dira behartu adierazpenak egitera. Legeak agintzen

duen eran, atxilotuentzako abokatu-laguntza bermatzen da, polizia-eginbideetan eta eginbide judizialean.

4.- Legeak "habeas corpus" prozedura arautuko du, edozein gizabanako legearen aurka atxilotua izanik, hori lehenbailehen agintaritza judizialaren esku jartzeko. Era berean, legeak mugatuko du behinbehineko espetxealdiaren gehieneko epea.

#### **18. artikulua.**

1.- Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea bermatzen da.

2.- Egoitza bortxaezina da. Bertara ezin da sartu, ezta erregistrorik egin ere, jabearen baimenik gabe edo epailearen ebazpenik gabe, delitua ageriagerikoa denean izan ezik.

3.- Komunikazioen sekretua bermatzen da, eta, bereziki, posta, telegrafo eta telefono bidezkoak, ebazpen judiziala izan ezean.

4.- Legeak informatikaren erabilera mugatuko du, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritza osoa bermatzeko.

#### **19. artikulua.**

Espainiarrek eskubidea dute, beren bizilekua askatasunez aukeratzeko eta nazioaren lurraldean zehar ibiltzeko.

Halaber, legeak ezartzen duen moduan, espainiarrek Espainian askatasunez sartu eta bertatik irteteko eskubidea dute. Eskubide hori ezin dute mugatu arrazoi politiko edo ideologikoek.

#### **20. artikulua.**

1.- Hurrengo eskubideak aitortu eta babesten dira:

a) Pentsamenduak, ideiak eta iritziak hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidetatik askatasunez azaldu eta zabaltzeko.

b) Ekoizpen eta sortze literario, artistiko, zientifiko eta teknikorako.

c) Katedra-askatasunerako.

d) Edozein hedabidetatik askatasunez egiazko informazioa komunikatu edo jasotzeko. Legeak kontzientzia-klausularako eta lanbide-sekreturako eskubideak arautuko ditu, askatasun horiek egikaritzeko orduan.

2.- Eskubide hauen egikaritza ezin da inola mugatu alde zurretiko zentsuraren bidez.

3.- Legeak arautuko ditu estatuaren nahiz bestelako erakunde publikoen menpeko gizartekomunikabideen antolakuntza eta parlamentukontrola, eta adierazgarri diren gizartetalde eta talde politikoei bermatuko die haietan parte hartzea, Espainiako gizarte-aniztasuna eta hizkuntzak errespetatuz.

4.- Askatasun horien guztien mugak dira titulu honetan zein eskubide aitortu eta eskubideoi zor zaien begirunea, horiek garatzeko emandako legemanuak, eta, batez ere, ohorerako, bizitza pribaturako eta norberaren irudirako eskubideak, bai eta gazteak eta haurrak babesteko eskubidea ere.

5.- Ebazpen judizialaren bidez bakarrik erabaki daiteke argitalpen, grabazio eta bestelako komunikabideen bahitura.

#### **21. artikulua.**

- 1.- Bilera baketsu eta armarik gabekoak egiteko eskubidea aitortzen da. Eskubide horren egikaritzak ez du aurretiazko baimenik behar.
- 2.- Bilerak iraganbide publikoetan egiteko edo kaleagerraldiak burutzeko, agintariari alde aurretiko jakinarazpena egin behar zaio, eta hark halakoak debekatu ahal izango ditu, soilik, pertsona eta ondasunen arriskuaz, ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarritunak daudenean.

#### **22. artikulua.**

- 1.- Elkartzeko eskubidea aitortzen da.
- 2.- Elkarteen helburuak edo bitartekoak delitu izanez gero, elkarteok legearen aurkakoak izango dira.
- 3.- Artikulu honen babesean sorturiko elkarteak erregistroan inskribatu behar dira, publizitateondoreetarako bakarrik.
- 4.- Elkarteak desegin edo horien jarduerak eteteko, nahitaezkoa da ebazpen judizial zioduna ematea.
- 5.- Isilpeko elkarteak eta elkarte paramilitarrak debekatzen dira.

#### **23. artikulua.**

- 1.- Herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuzen-zuzenean nahiz ordezkari bidez; ordezkariok askatasunez hautatuko dira, sufragio unibertsalaren bidez, aldizka egindako hauteskundeetan.
- 2.- Era berean, herritarrek eskubidea dute, berdintasun-baldintzetan eta legeek ezartzen dituzten betekizunekin, funtzio eta kargu publikoetara heltzeko.

#### **24. artikulua.**

- 1.- Gizabanako guztiek eskubidea dute, beraiei dagozkien eskubide eta interes legitimoak egikaritzean, epaile eta auzitegien babes eragingarria lortzeko, eta ezin daiteke inoiz ere babesgabeziarik gerta.
- 2.- Halaber, guztiek dute eskubidea, legeak lehendik izendaturiko epaile arrunta izateko, abokatuaren defentsa eta laguntza izateko, haien aurkako akusazioaren argibideak jasotzeko, jendaurreko prozesua bidegabeko atzerapenik gabe eta berme guztiekin burutzeko, euren buruen babeserako egoki diren frogabideak erabiltzeko, beren buruen aurka adierazpenik ez egiteko, errudun direla ez aitortzeko, eta errugabetasun-presuntzioa izateko.

Legeak arautuko du senidetasunarengatik edo lanbide-sekretuarengatik zein kasutan ez dagoen betebeharririk, ustez delitu diren egitateei buruz adierazpenak egiteko.

## **25. artikulua.**

1.- Ezin dakioker inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezar, baldin eta, une horretan delitu, falta edo arau-hauste administratiboak ez badira, aldi horretan indarrean dagoen legeriaren arabera.

2.- Zigor askatasun-gabetzaileek eta segurtasun neurriek berreztea eta gizartean birsartzea dute helburu, eta ezin daitezke lan bortxatuak izan.

Norbaiti espetxealdi-zigorra ezarri bazaio eta hori betetzen ari bada, kapitulu honetako oinarrizko eskubideak izango ditu; ez, ordea, beren beregi mugatuta dituenak, kondena-epaiaren edukia, zigorraren esangura eta espetxe-legea kontuan hartuta. Edonola ere, espetxeratuak lan ordaindua izateko eskubidea du, eta Gizarte Segurantzaren onurak izango ditu, bai eta kultura lortzeko eta bere nortasuna oso-osorik garatzeko eskubideak ere.

3.- Administrazio zibilak ezin du zehapenik ezarri, halako zehapenek, zuzenean edo modu subsidiarioan, askatasuna kentzen badute.

## **26. artikulua.**

Ohore-auzitegiak debekatzen dira, Administrazio zibilaren eta erakunde profesionalen esparruan.

## **27. artikulua.**

1.- Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntza-askatasuna aitortzen da.

2.- Giza nortasuna oso-osorik garatzea da hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak, eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz.

3.- Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea bermatzen dute, hauen seme-alabek heziketa erlijioso eta morala har dezaten, beraien uste sendoei dagokien bezalaxe.

4.- Oinarrizko hezkuntza nahitaezko eta doakoa da.

5.- Botere publikoek bermatzen dute gizabanako guztien hezkuntza-eskubidea, hezkuntzari buruzko programazio orokorraren bidez, sektore interesdun guztien parte-hartze eragingarriarekin eta ikastetxeak sortuz.

6.- Pertsona fisiko eta juridikoei ikastetxeak sortzeko askatasuna aitortzen zaie, konstituzio-printzipioei dagokien begirunearen barruan.

7.- Irakasleek, gurasoek eta, hala denean, ikasleek ere, parte hartuko dute Administrazioak diru publikoarekin ordaindutako ikastetxe guztien control eta kudeaketan, legeak ezartzen dituen mugekin.

8.- Botere publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute, legeen betetzea berma dadin.

9.- Botere publikoek laguntza emango diete legezko betekizunak dituzten ikastetxeei.

10.- Unibertsitateen autonomia aitortzen da, legeak ezartzen duenaren arabera.

### **28. artikulua.**

1.- Guztiek dute askatasunez sindikatzeko eskubidea. Legeak eskubide horren egikaritza muga edo salbuets diezaike Indar nahiz Erakunde Armatuei eta diziplina militarren menpeko gainerako kidegoei, eta haren egikaritzak funtzionario publikoentzat dituen berezitasunak arautuko ditu. Sindikatu-askatasunak bere barrean

hartzten ditu sindikatuak sortzeko eskubidea eta aukeratutako horretan afiliatzekoa, bai eta sindikatuak konfederazioak eratzeko, eta nazioarteko sindikatu-erakundeak sortu edo horietan afiliatzeko eskubidea ere. Inor ezin da behartu sindikatu batean afiliatzera.

2.- Langileen greba-eskubidea aitortzen da haien interesak defendatzeko. Legeak eskubide horren egikaritza arautuko du, eta legeak berak bermeak ezarriko ditu gizarteko zerbitzu premiazkoenei eusten zaiela ziurtatzeko.

### **29. artikulua.**

1.- Espainiar guztiek, banaka nahiz taldeka, eskariak egiteko eskubidea dute, betiere idatziz, legeak onartzen duen eran eta ondoreekin.

2.- Indar edo Erakunde Armatuetako kideek eta diziplina militarren menpeko gainerako kidegoetakoek erabil dezakete eskubide hori, eta beren legeria berezian xedatuarekin bat etorri.

## **BIGARREN ATALA**

### **Herritarren eskubideak eta eginbeharrak**

### **30. artikulua.**

1.- Espainiarrek Espainia defendatzeko eskubidea eta eginbeharra dute.

2.- Legeak finkatuko ditu espainiarren betebeharrak militarren, eta beharrezko diren bermeekin arautuko du kontzientzia-objekzioa, bai eta nahitaezko soldadutzaren zerbitzuetik salbuesteko bestelako arrazoiak ere; legeak, hala denean, ordezko gizarteprestazioa ezarri ahal izango du.

3.- Zerbitzu zibila ezarri ahal izango da interés orokorreko helburuak betetzeko.

4.- Herritarren eginbeharrak legearen bidez arautu ahal izango dira, arrisku larrietarako, hondamendikasuetarako edo herri-lazerietarako.

### **31. artikulua.**

1.- Guztiek gastu publikoei aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera; horretarako, zerga-sistema zuzena ezarriko da, berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarriturik; sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izango.

2.- Gastu publikoak ekitatez banatuko ditu baliabide publikoak, eta haren programazioak eta betearazpenak eragingarritasun- eta ekonomiaprintzipioak beteko dituzte.

3.- Izaera publikoko prestazio pertsonalak edo ondare-prestazioak legearen arabera, ez bestela, ezarri ahal izango dira.

### **32. artikulua.**

- 1.- Gizonak eta emakumeak berdintasun juridiko osoz ezkontzeko eskubidea dute.
- 2.- Legeak arautuko ditu ezkontzeko formak, adina, gaitasuna, ezkontideen eskubideak eta eginbeharrak, banantzeko eta ezkontza desegiteko arrazoiak, eta ezkontzaren ondoreak ere bai.

### **33. artikulua.**

- 1.- Jabetza pribaturako eta jarauntsirako eskubideak aitortzen dira.
- 2.- Eskubideon gizarte-eginkizunak legeen arabera mugatuko du haien edukia.
- 3.- Inori ez zaio bere ondasun eta eskubiderik kenduko, onura publikoko edo gizarte-intereseko arrazoi justifikaturik izan ezean, betiere kalte-ordain egokia emanaz eta legeetan xedatutakoaren arabera.

### **34. artikulua.**

- 1.- Interes orokorreko helburuetarako fundazioeskubidea aitortzen da legearen arabera.
- 2.- Fundazioen inguruan ere, 22. artikuluko 2 eta 4. paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da.

### **35. artikulua.**

- 1.- Espainiar guztiek lan egiteko eginbeharra dute, eta lanerako eskubidea dute, lanbide edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eta lanean igotzeko eskubideak dituzte, eta beren beharrianak eta beren familiarenak asetzeko adina ordainsari jasotzeko eskubidea ere, inoiz sexu-arrazoiengatik bereizkeriarik gertatu gabe.
- 2.- Legeak langileen estatutua arautuko du.

### **36. artikulua.**

Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.

### **37. artikulua.**

- 1.- Legeak lan-negoiazio kolektiborako eskubidea bermatuko du enpresaburu eta langileen ordezkarien artean, baita hitzarmenen indar loteslea ere.
- 2.- Langileek eta enpresaburuek gatazka kolektiboko neurriak hartzeko duten eskubidea aitortzen da. Legeak eskubide horren egikaritzea arautuko du, eta lege berberak beharrezko diren bermeak jasoko ditu gizartearen zerbitzu premiazkoenen jardunbidea ziurtatzeko, berak ezar ditzakeen mugei kalterik egin gabe.



**38. artikulua.**

Enpresa-askatasuna aitortzen da merkatuekonomiaren eremuan. Botere publikoek bermatu eta babesten dituzte haren egikaritza eta ekoizgarritasunaren defentsa, ekonomia orokorraren eskakizunei kasu eginez, eta, hala denean, plangintza kontuan izanik.

**HIRUGARREN KAPITULUA****Politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarriak****39. artikulua.**

- 1.- Botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dituzte.
- 2.- Botere publikoek, era berean, seme-alaben babes osoa ziurtatzen dute, seme-alabok legearen arabera berdinak izanik eta seme-alabatasuna kontuan hartu gabe, eta ama horien babes osoa ere bai, euren egoera zibila edonolakoa izanik. Legeak aitatasunaren ikerketa ahalbidetuko du.
- 3.- Gurasoek era guztietako laguntzak eskaini behar dizkiete seme-alabei, nahiz ezkontzakoak nahiz ezkontzatik kanpokoak izan, haien adingabetasunean zehar eta lege-aginduz bidezko diren beste kasuetan ere bai.
- 4.- Umeek nazioarteko itunetan ezarritako babesak izango dute, itunok haien eskubideak zaintzen dituzten neurrian.

**40. artikulua.**

- 1.- Botere publikoek baldintza onuragarriak sustatuko dituzte, aurrerapen sozial eta ekonomikoa gerta dadin, eta herrialdeen eta gizabanakoen errenta ekitatez bana dadin, egonkortasun ekonomikorako politikaren esparruan. Botere publikoek, bereziki, enplegu osoa lortzera bideraturiko politika egingo dute.
- 2.- Halaber, botere publikoek lanbideko heziketa eta birmoldatzea bermatzeko politika zehatza sustatuko dute; laneko segurtasuna eta garbitasuna zainduko dituzte; eta, lan-saioa mugatuz, aldizka oporren ordainketa ziurtatuz eta zentro egokiak suspertuz, behar-beharrezko atsedena bermatuko dute.

**41. artikulua.**

Botere publikoek herritar guztientzat Gizarte Segurantzako araubide publikoari eutsiko diote; sistema horrek gizarte-laguntza eta –prestazio nahitaezkoak bermatuko ditu beharizan-egoeretan eta, batez ere, langabezia-kasuetan. Laguntza eta prestazio osagarriak askeak izango dira.

**42. artikulua.**

Estatuak bereziki zainduko ditu atzerrian ari diren langile espainiarren eskubide ekonomiko eta sozialak, eta haien itzuleraren alde zuzenduko du bere politika.

**43. artikulua.**

- 1.- Osasuna babesteko eskubidea aitortzen da.
- 2.- Botere publikoei dagokie aurreneurrien bidez eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez osasun publikoa antolatu eta babestea. Horretarako, legeak ezarriko ditu guztion eskubideak eta eginbeharrak.
- 3.- Botere publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola sustatuko dituzte. Era berean, aisialdiaz behar bezala baliatzen lagunduko dute.

**44. artikulua.**

- 1.- Botere publikoek kultura eskuratzea bultzatu eta babestuko dute, guztiek baitute kulturarako eskubidea.
- 2.- Botere publikoek, interes orokorraren mesederako, zientzia eta ikerketa zientifiko nahiz teknikoa bultzatuko dituzte.

**45. artikulua.**

- 1.- Guztion eskubidea da gizabanakoaren garapenerako egoki den ingurumena izatea, eta guztion eginbeharra ere bada hori zaintzea.
- 2.- Botere publikoek zainduko dute baliabide natural guztien erabilera arrazionala, bizitzakalitatea babestu eta hobetzeko, eta ingurumena defendatu eta berriztatzeke, behar-beharrezko den elkartasun kolektiboan oinarrituz.
- 3.- Norbaitek aurreko paragrafoak xedatu dueña hausten badu, legezko mugen barruan horri zehapen penalak ezarriko zaizkio, edo, hala denean, administrazio zehapenak, bai eta eragindako kaltea konpontzeko betebeharra ere.

**46. artikulua.**

Botere publikoek bermatuko dute Espainiako herrien ondare historiko, kultural eta artistikoa zaindu eta aberastea, bai eta ondareon ondasunena ere, horien araubidea eta titulartasuna edozein izanda. Zigorlegeak zehatuko ditu ondare horien kontrako atentatuak.

**47. artikulua.**

Espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dute. Botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, eskubide hori eragingarria izan dadin; eta, espekulazioa desagerrarazteko, interés orokorraren arabera arautuko dute lurraren erabilera.

Erakunde publikoen hirigintza jarduerak gainbalioa sortzen badu, gizarteak horietan parte hartuko du.

**48. artikulua.**

Gazteriak garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean parte-hartze aske eta eragingarria izan dezan, botere publikoek behar bezalako inguruabarrak bultzatuko dituzte.

**49. artikulua.**

Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko.

**50. artikulua.**

Botere publikoek, aldizka eguneratutako pentsio egokien bidez, gutxieneko kaudimena bermatuko die herritarrei zahartzaroan. Modu berean, eta familiaren betebeharretatik kanpo, haien ongizatea bultzatuko dute gizarte-zerbitzuen bidez, beraien arazo bereziei kasu eginez, osasunari, etxebizitzari, kulturari eta aisialdiari dagokienez.

**51. artikulua.**

1.- Botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatuko dute, eta, prozedura eragingarrien bidez, haien segurtasuna, osasuna eta interes ekonomiko legitimoak babestuko dituzte.

2.- Botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eta heziketa ematea sustatuko dute; haien antolakuntzak suspertuko dituzte; horiei dagozkien arazoetan entzun egingo diete, legeak ezartzen duenaren arabera.

3.- Aurreko paragrafoetan xedaturikoaren esparruan, legeak barne-merkataritza arautu eta merkataritzako produktuen baimen-araubidea ezarriko du.

**52. artikulua.**

Legeak lanbide-antolakuntzak arautuko ditu, berezko interes ekonomikoak izan eta interes horiek babesten dituztenak. Haien barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.

**LAUGARREN KAPITULUA****Askatasunen eta oinarrizko eskubideen gaineko bermeak****53. artikulua.**

1.- Titulu honen bigarren kapituluan aitorturiko eskubide eta askatasunak lotesleak dira botere publiko guztientzat. Lege bidez bakarrik arautu ahal izango da eskubide eta askatasun horien egikaritza; lege horrek, edozein kasutan, haien oinarrizko edukia errespetatu beharko du, eta eskubide eta 161, 1, a). askatasunok 161.1.a) artikuluan ezarri bezala babestuko dira.

2.- Herritar guztiek auzitegi arruntetan eskatu ahal dute 14. artikuluan eta II. kapituluko 1. Atalean aitortutako askatasun eta eskubideen babesa; horretarako, lehentasun- eta sumariotasunprintzipioetan oinarritutako prozedura erabiliko da, eta, hala denean, babes-errekurtsoa ere jar daiteke Konstituzio Auzitegian. Azken errekurtso hori aplikatu

dakioke, halaber, 30. artikuluan aitorturiko kontzientzia-objekzioari ere.

3.- Hirugarren kapituluan aitortutako printzipioak onartu, errespetatu eta babestu egin behar dira, eta legeria positiboak, eginera judizialek eta botere publikoen jardunak horiexek izango dituzte kontuan. Jurisdikzio arruntean halakoak alegatu ahal izateko, nahitaezkoa da haiek garatzen dituzten legeak aintzakotzat hartzea.

#### **54. artikulua.**

Lege organikoak arautuko du Herri Defendatzailearen erakundea, Gorte Nagusietako komisionatu goren bezala, haiek izendatuta, titulu honetan barneratzen diren eskubideak defendatzeko; horretarako, Herri Defendatzaileak Administrazioaren jarduna gainbegiratu ahal izango du, Gorte Nagusiei kontu-arrazoiak emanaz.

### **BOSGARREN KAPITULUA**

#### **Eskubideak eta askatasunak etetea**

#### **55. artikulua.**

1.- Konstituzioan ezarri bezala, salbuespen- edo setio-egoera erabakiz gero, 17. artikuluan, 18. artikulua 2 eta 3. paragrafoetan, 19. artikuluan, 20. artikulua 1.a), 1.d) eta 5. paragrafoetan, 21. artikuluan, 28. artikulua 2. paragrafoan eta 37. artikulua 2. paragrafoan aitortutako eskubideak eten ahal izango dira. Salbuespen-egoeraren kasuan, aurretiaz ezarritako horietatik salbuetsi behar da 17. artikuluko 3. paragrafoa.

2.- Lege organikoak zehaztu ahal izango du gizabanako jakin batzuentzat nola eta zein kasutan eten daitezkeen, beharrezko den esku-hartze judizialarekin eta Parlamentuak kontrol egokia eginez, 17. artikulua 2. paragrafoan eta 18. artikulua 2 eta 3. paragrafoetan aitorturiko eskubideak; hala gertatuko da, banda armatuen edo elementu terroristen jardunari buruz ikerketak egin ahal izateko.

Lege organiko horretan aitortutako ahalmenak justifikaziorik gabe edo abusuz erabiltzen badira, horrek erantzukizun penala ekarriko du, legeek ezarritako eskubide eta askatasunak bortxatu direlako.

## **2. GAIA. ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (II). ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAMENDUA (137-158 ARTIKULUAK).**

### **VIII. TITULUA**

#### **Estatuaren lurralde-antolaketa**

#### **LEHENENGO KAPITULUA**

#### **Printzipio orokorrak**

##### **137. artikulua.**

Lurraldeari dagokionez, estatua udalerrri, probintzia eta sortzeko diren autonomia-erkidegoetan antolatzen da. Erakunde horiek guztiek autonomia dute beren interesak kudeatzeko.

##### **138. artikulua.**

1.- Estatuak bermatzen du solidaritate-printzipioa, Konstituzioaren 2. artikuluan aldarrikatua, eragingarritasunez betetzea; horretarako, Espainiako lurraldeko toki desberdinen artean oreka ekonomiko egoki eta zuzena ezar dadin begiratuko du, eta, bereziki, uharteen egoera hartuko du kontuan.

2.- Autonomia-erkidegoetako estatutuen artean desberdintasunak izan arren, desberdintasun horiek ezin dezakete inoiz ere pribilegio ekonomiko edo sozialik ekar.

##### **139. artikulua.**

1.- Espainiar guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, estatuko lurraldeko edozein tokitan.

2.- Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea.

### **BIGARREN KAPITULUA**

#### **Toki Administrazioa**

##### **140. artikulua.**

Konstituzioak udalerrien autonomia bermatzen du. Udalerriek nortasun juridiko osoa dute. Udalerrien gobernua eta administrazioa haien udalei dagozkie, eta alkate eta zinegotziek osatzen dituzte udalok. Udalerriko biztanleek aukeratuko dituzte zinegotziak, sufragio unibertsal, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez, legeak ezarritako moduan. Zinegotziek edo biztanleek eurek aukeratuko dituzte alkateak. Legeak arautuko du noiz izango den bidezkoa kontzeju irekiaren araubidea.

**141. artikulua.**

- 1.- Probintzia toki erakundea da, eta berezko nortasun juridikoa dauka; udal-elkartzeak eta lurralde-zatiketak mugatzen dute probintzia, estatuaren jarduerak betetzeko. Probintzia baten mugak aldatzeko, Gorte Nagusiek lege organikoaren bidez onetsi beharko dute aldaketa hori.
- 2.- Probintzietako gobernu eta administrazio autonomia diputazioei edo bestelako ordezkariak erakundeei dagokie.
- 3.- Probintziaz bestelako udal-elkartzeak sor daitezke.
- 4.- Uhartedietan, uharteek euren berezko administrazioa izango dute kabildo edo kontseiluen bidez.

**142. artikulua.**

Kasuan kasuko erakundeei legearen arabera dagozkien eginkizunak betetzeko, toki ogasunek behar besteko baliabideak izango dituzte; eta horien hornidura nagusiak izango dira udal zergak, eta estatuko eta autonomia-erkidegoetako dirusarreretan parte hartzea.

**HIRUGARREN KAPITULUA****Autonomia-erkidegoak****143. artikulua.**

- 1.- Konstituzioaren 2. artikulua aitortzen duen autonomia-eskubidea egikaritzeko, probintziek, mugakide izanik eta historia-, kultura- eta ekonomiaezaugarri berdintsuak edukita, uharteetako lurraldeek eta herrialde-nortasun historikoa duten probintziek beren autogobernua lor dezakete, autonomia-erkidegoak eratuz, titulu honetan eta kasuan kasuko estatutuaren arabera.
- 2.- Autonomia-prozesuaren ekimena dagokie diputazio interesdun guztiei edo uharte arteko erakunde eskudunari, eta udalen bi herenei, baldin eta udalok, probintzia edo uharte bakoitzaren hauteskunde-eroldari begira, gehiengoa ordezkatzeko badute.  
Betekizun horiek bete beharko dute, tokiko erakunde interesdunetatik edozeinek horren inguruan lehenengo erabakia noiz hartu eta hurrengo sei hilabeteetan.
- 3.- Ekimenak aurrera egiten ez badu, bost urte igaro arte ezin izango da berriz aurkeztu.

**144. artikulua.**

Gorte Nagusiek, lege organikoaren bidez, eta nazioaren intereserako, erabaki hauek har ditzakete:

- a) Autonomia-erkidegoa eratzeko baimena ematea, nahiz eta erkidego horren lurralde-eremua probintzia batekoa izan eta 143. artikuluko lehenengo paragrafoan ezarritako baldintzak bete ez.
- b) Probintzia-antolaketarik ez duten lurraldeentzat, autonomia-estatutuari baimena ematea edo, hala denean, erabakitzea.
- c) 143. artikulua 2. paragrafoa aipatutako toki erakundearen ekimena ordezkatzeko.

**145. artikulua.**

- 1.- Ez da inola ere onartuko autonomia-erkidegoen arteko federaziorik.
- 2.- Estatutuek ezar dezakete zein kasu, betekizun eta modu bete behar den, autonomia-erkidegoek elkarrekin hitzarmenak egin ditzaten, berezko dituzten zerbitzuak kudeatu eta egiteko; estatutuek ezar dezakete, berebat, nolako izaera eta ondoreak izango dituen Gorte Nagusiei egin beharreko komunikazioak. Bestelako kasuetan, Gorte Nagusien baimena izan beharko da, autonomia-erkidegoen artean lankidetzaz-hitzarmenak sinatzeko.

**146. artikulua.**

Estatutuaren proiektua biltzar batek prestatuko du; biltzar hori osatuko dute ukitutako probintzien diputazioko edo uharte arteko organoko kideek, eta probintziotan aukeratutako diputatu eta senatariek ere bai; proiektua Gorte Nagusietara bidaliko da, lege modura haren izapidetza egiteko.

**147. artikulua.**

- 1.- Konstituzio honen arabera, estatutuak autonomiaerkidegoen oinarritzko erakunde-arauak izango dira, eta estatuak hala aitortu eta babestuko ditu, bere antolamendu juridikoaren osagai dira eta.
- 2.- Autonomia-estatutuek ondokoak jaso behar dituzte:
  - a) Erkidegoaren izena, haren nortasun historikoaren arabera egokiena dena.
  - b) Erkidegoaren lurralde-mugak.
  - c) Berezko erakunde autonomoen izena, antolaketa eta egoitza.
  - d) Konstituzioak ezarri eremuaren barruan bereganaturiko eskumenak, eta eskumenok zein zerbitzu ekarri eta zerbitzu horiek eskualdatzeko oinarriak.
- 3.- Estatutuak eraldatzeko, beraietan ezarritako prozedura bete beharko da, eta, edozein kasutan, nahitaezko gertatuko da Gorte Nagusiek lege organikoaren bidez eraldaketa onestea.

**148. artikulua.**

- 1.- Honako gai hauek izan daitezke autonomiaerkidegoen eskumenekoak:
  - 1) Beren autogobernurako erakundeak antolatzea.
  - 2) Beren lurraldearen barruko udal-mugarteak aldatzea eta, orokorrean, Estatuaren Administrazioari toki erakundeen gain dagozkion eginkizunak betetzea, toki araubideari buruzko legeriak eginkizun horiek transferitzeko baimena ematen badu.
  - 3) Lurralde-antolakuntza, hirigintza eta etxebizitza.
  - 4) Autonomia-erkidegoaren intereserako herri-lanak, bere lurraldearen barruan.
  - 5) Trenbideak eta errepideak, horien ibilbide osoa autonomia-erkidegoaren lurraldean hasi eta amaitzen denean, eta, baldintza bereberekin, bide horietatik nahiz kable bidez egindako garraioa.

- 6) Babes-portuak, kirol-portu eta -aireportuak, eta, orokorrean, merkataritzako jarduerarik burutzen ez dutenak.
  - 7) Nekazaritza eta abeltzaintza, ekonomiaren antolakuntza orokorraren arabera.
  - 8) Mendiak eta baso-aprobetxamenduak.
  - 9) Ingurumena babesteko kudeaketa.
  - 10) Autonomia-erkidegoaren intereserako aprobetxamendu hidrauliko, ubide eta ureztatzesailetan, proiektuak egitea, eta halakoak eraiki eta ustiatzea; orobat, metal-uretan eta ur termaletan.
  - 11) Barne uretako arrantza, itsaskigintza, ehiza eta ibai-arrantza.
  - 12) Barne azokak.
  - 13) Autonomia-erkidegoaren garapen ekonomikoa sustatzea, nazioko politika ekonomikoak finkatu dituen helburuen barruan.
  - 14) Eskulangintza.
  - 15) Autonomia-erkidegoaren intereserako museo, biblioteka eta musika-eskolak.
  - 16) Autonomia-erkidegoaren intereserako monumentu-ondarea.
  - 17) Kultura, ikerkuntza eta, hala denean, autonomiaerkidegoko hizkuntzaren irakaskuntza sustatzea.
  - 18) Autonomia-erkidegoaren lurraldearen barruan, turismoa sustatu eta antolatzea.
  - 19) Kirola eta aisialdiaren erabilera egokia sustatzea.
  - 20) Gizarte-laguntza.
  - 21) Osasuna eta garbitasuna.
  - 22) Autonomia-erkidegoaren eraikinak eta instalazioak zaindu eta babestea. Tokiko polizia dagokienez, koordinazio-lana eta bestelako ahalmenak burutzea, lege organikoak ezarri duenaren arabera.
- 2.- Bost urte igaro ondoren, eta estatutuak aldatuz, autonomia-erkidegoek beren eskumenak zabal ditzakete, ondoz ondo, konstituzio honen 149. artikulua ezarritako eremuaren barruan.

#### **149. artikulua.**

1.- Honako gai hauek estatuaren eskumen eskusibokoak dira:

- 1) Konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean, espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak arautzea.
- 2) Naziotasuna, immigrazioa, emigrazioa, atzerritartasuna eta asilo-eskubidea.
- 3) Nazioarteko harremanak.
- 4) Defentsa eta Indar Armatuak.
- 5) Justizia Administrazioa.
- 6) Merkataritza-, zigor- eta espetxe-legegintza; prozesu-legegintza, arlo horretan beharrezkoak diren berezitasunei kalterik egin gabe, halako berezitasunak izan baitaitezke autonomiaerkidegoetako zuzenbide substantiboan.
- 7) Lan-legegintza; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoetako organoen ardura izan daiteke lege horiek betearaztea.



- 8) Legegintza zibila; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, iraunarazi, aldatu eta garatu ahal izango dituzte, halakoak direnetan. Edozein kasutan, arau juridikoen aplikazio eta eragingarritasunari buruzko erregelak, ezkontzeko formei dagozkien harreman juridiko-zibilak, erregistro eta agerkari publikoen antolakuntza, kontratuetako betebeharren oinarriak, lege-gatazkak konpontzeko arauak eta Zuzenbidearen iturburuak zehazten dituztenak, betiere, azken kasu horretan, foru-zuzenbidearen edo zuzenbide bereziaren arauak errespetatuz.
- 9) Jabetza intelektualari eta industria jabetzari buruzko legegintza.
- 10) Aduana eta arantzelen araubidea; eta kanpo merkataritza.
- 11) Diru-sistema: dibisak, kanbioa eta diruak trukatzeko aukera; kredituak, bankuak eta aseguruak antolatzeko oinarriak.
- 12) Pisu eta neurriei buruzko legegintza; ordu ofiziala erabakitzea.
- 13) Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehaztea eta horren koordinazio orokorra egitea.
- 14) Ogasun Nagusia eta Estatuaren Zorra.
- 15) Ikerkuntza zientifiko eta teknikoa bultzatu eta koordinazio orokorra egitea.
- 16) Atzerrirako Osasuna. Osasunaren oinarriak eta koordinazio orokorra. Sendagaiei buruzko legegintza.
- 17) Gizarte Segurantzaren oinarrizko legegintza eta araubide ekonomikoa; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek betearaz ditzakete haren zerbitzuak.
- 18) Herri-administrazioen araubideari eta horien funtzionarioen estatutuari buruzko oinarriak, kontuan hartuta oinarriok beti bermatuko dutela herritar guztiek tratatu bera izatea administrazio horietan; administrazio-prozedura erkidea, autonomia-erkidegoen berezko antolaketa eratorzen dituen berezitasunei kalterik egin gabe; nahitaez jabetza kentzeko legegintza' administrazio-kontratu eta - emakidei buruzko oinarrizko legegintza; eta herriadministrazio guztien erantzukizun-sistema.
- 19) Itsas arrantza, autonomia-erkidegoek sektore hori antolatzeko dituzten eskumenei kalterik egin gabe.
- 20) Merkataritzako marina eta ontziei bandera jartzea; itsasbazerretan argiak jartzea eta itsas seinaleak egitea; interes orokorreko portuak; interés orokorreko aireportuak; aireko espazioa, eta airetiko bidaiak eta garraioa kontrolatzea; meteorologiazerbitzua; eta aireontzien matrikulazioa.
- 21) Autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldetik dabiltzan trenbideak eta lehorreko garraioak; komunikabideen araubide orokorra; ibilgailu motordunen trafiko eta zirkulazioa; posta eta telekomunikazioak; aireko kableak, itsasazpikoak eta irrati-komunikazioa.
- 22) Baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen gaineko legegintza, antolaketa eta emakida, urek autonomia-erkidego bat baino gehiago zeharkatzen dutenean; instalazio elektrikoetarako baimena ematea, horien aprobetxamenduak beste erkidego batean eragina duenean edo energiaren garraioa haren lurralde-eremutik ateratzen denean.

23) Ingurumena babesteko oinarrizko legegintza; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek ahalmenak izan ditzakete, babes-arau gehigarriak ezartzeko. Mendiei, baso-aprobetxamenduei eta abelbideei buruzko oinarrizko legegintza.

24) Interes orokorreko herri-lanak edo autonomiaerkidego bat baino gehiagotan eragina dutenak.

25) Mea- eta energia-araubidearen oinarriak.

26) Armak eta lehergailuak ekoitzi, saldu nahiz erosi, eduki eta erabiltzeko araubidea.

27) Prentsaren, irratia, telebistaren eta, orokorrean, gizarte-komunikabide guztien araubideari buruzko oinarrizko arauak; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek ahalmenak izan ditzakete arau horiek garatu eta betearazteko.

28) Espainiaren kultura-, arte- eta monumentuondarea babestea, esportazio eta espoliazioen aurka; Estatuaren titulartasuneko museoak, bibliotekak eta artxiboak, autonomia-erkidegoek horiek kudeatzeko izan dezaketen ahalmenari kalterik egin gabe.

29) Herri-segurtasuna; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek poliziak sor ditzakete, kasuan kasuko estatutuek ezartzen duten bezala, eta lege organikoak xedatutako eremuaren barruan.

30) Titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzak arautzea, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarrizko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

31) Estatu-helburuetarako estatistika.

32) Referendum bidez herri-kontsultak egiteko deialdia baimentzea.

2.- Autonomia-erkidegoek bereganatu ahal dituzten eskumenei kalterik egin gabe, estatuarentzat eginbeharra eta oinarrizko aginpidea izango da kultur zerbitzua, eta autonomia-erkidegoen artean kultur harremanak erraztuko ditu, horiekin ados jarrita.

3.- Konstituzio honetan beren beregi estatuari eratziki ez zaizkion gaiak autonomia-erkidegoei egokitu ahal zaizkie, beraien estatutuen arabera.

Autonomia-estatutuen bidez gai horien gaineko eskumena bereganatu ez bada, hori estatuari dagokio, eta, gatazka izanez gero, estatuaren arauak autonomia-erkidegoetako arauen gainetik nagusituko dira, horiei beren beregi eskumen eskusiboa eman ez zaien neurrian. Estatuaren zuzenbidea autonomia-erkidegoetako zuzenbidearen ordezkia izango da beti.

#### **150. artikulua.**

1.- Estatuaren eskumeneko gaietan, Gorte Nagusiek autonomia-erkidego guztiei edo horietatik bati nahiz batzuei eman diezaiekete beren buruentzat legezko arauak emateko ahalmena, betiere estatuaren legeak finkatutako printzipio, oinarri eta gidalerroekin bat etorriz. Auzitegien eskumenari kalterik egin gabe, lege-marko bakoitzak zehaztuko du nola kontrolatuko dituzten Gorte Nagusiek autonomiaerkidegoetako legezko arau horiek.

2.- Lege organikoaren bidez, estatuak autonomiaerkidegoei transferi edo eskuorde diezazkieke estatuaren titulartasunari dagozkion ahalmenak, baldin eta ahalmenok, beren izaera dela eta, transferitu edo eskuordetzeko modukoak badira.

Legeak kasuan-kasuan zehaztuko du finantzabaliabideen transferentzia egokia, bai eta estatuak bere buruarentzat erreserbatzen dituen kontrolbideak ere.

3.- Interes orokorrak hori behar duenean, estatuak legeak eman ditzake, autonomia-erkidegoetako arau-xedapenak harmonizatzeko, beharrezkoak diren printzipioak bilduz, nahiz eta legeok autonomiaerkidegoen eskumeneko gaiak ukitu. Gorte Nagusiei dagokie, ganbera bakoitzeko erabateko gehiengoak hala onetsita, beharrian hori atzematea.

#### **151. artikulua.**

1.- Ez dira derrigor igaro behar Konstituzio honen 148. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren bost urteak, baldin eta autonomia-prozesuaren ekimena erabakitzen badu, 143.2 artikuluko epean, diputazio edo uharte arteko erakundeez gain, probintzia

bakoitzeko udalen hiru laurdenak; nahitaezkoa da hiru laurden horiek, gutxienez, probintzia bakoitzeko hauteskunde-zerrendaren gehiengoa ordezkatzeari, eta, referendumen bidez ekimena onestea, probintzia bakoitzeko hautesleen erabateko gehiengoak baiezko botoa emanik, lege organikoaren arabera.

2.- Aurreko paragrafoak araututako kasuan, estatutua egiteko prozedura hurrengoa izango da:

1) Autogobernua nahi duen lurralde-eremu horrek zenbait barruti barneratzen dituela kontuan hartuta, Gobernuak deialdia egingo die barruti horietan aukeratutako diputatu eta senatariei, biltzarra egin dezaten; biltzar horren helburu bakarra izango da autonomia-estatutuaren proiektua idaztea, biltzarkideen erabateko gehiengoak erabakita.

2) Behin parlamentukideen biltzarrak estatutuaren proiektua onetsi eta gero, proiektu hori Kongresuko Konstituzio Batzordeari igorriko zaio, eta batzorde horrek, hurrengo bi hilabeteetan, aztertuko du, biltzar proposatzailearen ordezkari batzuen partehartze eta laguntzarekin, guztiok ados jarri eta testuari behin betiko idazkera emateko.

3) Adostasun hori lortuz gero, azken testuaren gainean referenduma egingo da, estatutu-proiektuaren lurralde-eremuak zein probintzia barneratu eta probintzia horietako hautesleen artean.

4) Probintzia bakoitzean baliozkotasunez emandako boto guztietatik, gehienek onesten badute estatutuaren proiektua, hori Gorte Nagusietara bidaliko da. Bi ganberetako osoko bilkurek testuaren gaineko erabakia hartuko dute berrespen-botoaren bidez. Estatutua onetsi eta gero, Erregeak sendetsi eta lege bezala aldarrikatuko du.

5) Paragrafo honen bigarren aipatzen den adostasuna lortzen ez bada, estatutu-proiektuaren izapideak lege-proiektu gisa egingo dira Gorte Nagusietan. Gorteek testua onetsi eta gero, testu horren gainean referenduma egingo da, estatutu-proiektuaren lurralde-eremuak zein probintzia barneratu eta probintzia horietako hautesleen artean.

Probintzia bakoitzean baliozkotasunez emandako boto guztietatik, gehienek onesten badute testua, hori aurreko aipatu den moduan aldarrikatuko da.

3.- Aurreko paragrafoaren 4 eta 5. kasuetan, probintzia batek edo gehiagok estatutu-proiektua onesten ez badu, horrek ez du eragotziko gainerakoen artean aurreikusitako autonomia erkidegoa eratzea, artikulua honen lehenengo paragrafoan aipatutako lege organikoa aplikatuta.

**152. artikulua.**

1.- Estatutuak onetsi badira aurreko artikulua aipatzen duen prozedura erabiliz, autonomiaerkidegoko erakunde-antolaketa oinarri izango du biltzar legegilea; biltzar hori sufragio unibertsalaren bidez aukeratuko da, proportziozko ordezkari sistemaren arabera, eta sistema horrek ziurtatuko du lurraldeko eskualde guztiak ordezkaturik egotea.

Oinarri izango du, orobat, Gobernu Kontseilua, eta kontseilu horrek betearazteko eginkizunak eta administrazio-egitekoak izango ditu. Erakundeantolaketa oinarri izango du, bestalde, lehendakaria, biltzarrak bere kideen artean aukeratu eta Erregeak izendatua; lehendakariari dagozkio Gobernu Kontseiluaren zuzendaritza, autonomiaerkidegoaren ordezkari goren eta estatuaren ordezkari arrunta autonomia-erkidegoan. Lehendakariak eta Gobernu Kontseiluko kideek erantzukizun politikoa izango dute biltzarrean.

Auzitegi Gorenak duen jurisdikzioari kalterik egin gabe, auzitegi nagusia antolakuntza judizialaren gailurra izango da autonomia-erkidegoko lurraldeeremuan. Autonomia-erkidegoetako estatutuek ezarriko dute erkidegoek zein kasutan eta nola parte har dezaketen euren lurraldean epai-barrutiak antolatzen direnean. Hori guztia egin beharko da, botere judizialaren lege organikoarekin bat etorriz, eta botere horren batasuna eta independentzia hautsi barik.

123. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, prozesuaren ondoz ondoko auzialdiak agortu egingo dira, hala denean, autonomia-erkidegoaren lurraldean bertan kokaturiko organo judizialetan, lurralde horretan badago lehen auzialdiko órgano eskuduna.

2.- Behin estatutuak sendetsi eta aldarrikatu ondoren, horiek aldarazteko, haietan ezarritako prozedurak bete beharko dira, eta referenduma egin beharko da, kasuan kasuko hauteskundezerrendetan jasotzen diren hautesleen artean.

3.- Mugakide diren udalak elkartzuz gero, estatutuek berezko lurralde-barrutiak ezar ditzakete; barrutiok nortasun juridiko osoa izango dute.

**153. artikulua.**

Autonomia-erkidegoetako organoen jarduera kontrolatuko dute:

- a) Konstituzio Auzitegiak, lege-indarreko arauen konstituziotasunari dagokionez.
- b) Gobernuak, Estatu Kontseiluak txostena eman eta gero, 150. artikulua 2. paragrafoaren arabera eskuordetza bidez jasotako eginkizunak betetzeari dagokionez.
- c) Administrazio-azibideetarako jurisdikzioak, autonomia-erkidegoetako administrazioari eta haren erregelamenduei dagokienez.
- d) Kontuen Auzitegiak, jarduera ekonomikoari eta aurrekontuei dagokienez.

**154. artikulua.**

Gobernuak ordezkaria izendatuko du, eta ordezkari horrek estatuaren administrazioa gidatuko du autonomia-erkidegoaren lurraldean, eta, hala denean, hori koordinatuko du erkidegoaren berezko administrazioarekin.

**155. artikulua.**

1.- Autonomia-erkidegoak Konstituzioak edo bestelako legeek berari ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, edo autonomia-erkidegoaren jardunak kalte larriak eragiten badizkio Espainiaren interes orokorrari, Gobernuak agindeia egingo dio autonomia-erkidegoko lehendakariari, eta horrek agindeiari kasu egin ezean, Gobernuak beharrezko diren neurriak har ditzake, Senatuaren erabateko gehiengoak hala onetsita, autonomia-erkidegoa behartzeko nahitaez bete ditzan betebeharrak, edo interes orokor hura babestuta gera dadin.

2.- Aurreko paragrafoan ezarri neurriak betearazteko, Gobernuak jarraibideak eman ahal dizkie autonomia-erkidegoetako agintari guztiei.

**156. artikulua.**

1.- Autonomia-erkidegoek, beren eskumenak garatu eta betearazteko, finantza-autonomia izango dute, Estatu Ogasunarekin koordinazio- eta espainiar guztien arteko elkartasun-printzipioen arabera.

2.- Autonomia-erkidegoek estatuaren eskuorde edo laguntzaile moduan jardun dezakete, haren zergabaliabideak bildu, kudeatu eta likidatzeko, legeen eta estatutuen arabera.

**157. artikulua.**

1.- Autonomia-erkidegoen diru-iturriak izango dira:

- a) Estatuak osorik edo zati batez lagatako zergak, estatuaren zergen gaineko errekaruak, eta estatuaren diru-sarreretan izan beharreko beste partaidetzak.
- b) Berezko zerga, tasa eta kontribuzio bereziak.
- c) Lurralde arteko Konpentsazio Funtsetik egindako transferentziak, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorraren konturako beste diru-kopuruak.
- d) Beren ondareek ematen dituzten etekinak eta zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.
- e) Kreditu-eragiketen emaitzak.

2.- Autonomia-erkidegoek ezin izango dute inola ere zergen inguruko neurririk ezarri, baldin eta zergok eragina badute haien lurraldetik kanpo dauden ondasunen gainean, edo xedapen horiek merkatugai edo zerbitzuen zirkulazio askea oztopatzen badute.

3.- Lege organikoaren bidez arautu ahal izango da nola erabiliko diren lehenengo paragrafoan aipaturiko finantza-eskumenak; lege organikoaren bidez ere arauak eman ahal izango dira, sor daitezkeen gatazkak konpontzeko, eta finantzalankidetzarako moduak ezarri ahal izango dira, estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean.

**158. artikulua.**

1.- Estatuaren Aurrekontu Orokorretan, diru-kopuru bat ezar daiteke autonomia-erkidegoentzat, estatuaren zerbitzu eta jardueren artean autonomiaerkidegoek zenbat bereganatu dituzten kontuan hartuta; hori egiteko, bermatu behar da, Espainiako lurralde osoan, oinarritzko herri-zerbitzuen gutxienerako maila.

2.- Lurraldeen arteko desoreka ekonomikoak zuzentzeko eta elkartasun-printzipioa eragingarritasunez betetzeko, Konpentsazio Funtza eratuko da inbertsio-gastuetarako; Gorte Nagusiek funts horren baliabideak banatuko dituzte autonomiaerkidegoen artean, eta, egoki bada, probintzien artean ere bai.

**4. GAIA. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUA (I). ATARIKO TITULUA (1-9 ARTIKULUAK). I. TITULUA: EUSKAL HERRIAREN ESKUMENAK (10-12 ARTIKULUAK). II. TITULUA: EUSKAL HERRIKO AGINTEAK (24-39 ARTIKULUAK).**

**ATARIKO TITULUA**

**1. artikulua**

Euskal herriak, bere naziotasunaren adierazgarri eta autogobernua iristeko, Autonomia Erkidego gisa eratzen du bere burua Espainiako Estatuaren barruan, Euskadi zein Euskal Herria izenez, Konstituzioarekin eta oinarrizko erakunde-arau duen Estatutu honekin bat.

**2. artikulua**

1.-Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak dute, Nafarroak bezala, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea.

2.-Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoek, gaur egungo probintzien muga berberetan, osatuko dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurraldea; baita Nafarroakoak ere, baldin eta Konstituzioaren Aldibaterako Laugarren Xedapenean finkatutako jardunbideari jarraituz partaide izatea erabakitzen badu.

**3. artikulua**

Euskal Herria osatzen duten lurralde historikoetarik bakoitzak ahal izango du, Erkidegoaren baitan, bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak gorde edota, hala dagokionean, biziberritu eta eguneratu.

**4. artikulua**

Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez finkatuko da Euskal Herriko Autonomia Erkidego osorako erakundearen egoitza Autonomia Erkidegoaren lurralde barruan.

**5. artikulua**

1.-Euskal Herriko ikurrina gurutzebikoa da, hondo gorrian zeharkako gurutze berdea eta gainean gurutze zuria dituena.

2.-Orobat onartzen dira Autonomia Erkidegoa osatzen duten herrialdeen bandera ta ezaugarri bereziak.

**6. artikulua**

1.-Euskara, Euskal herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

2.-Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun sozio-linguisikoa kontutan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.

3.-Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.

4.-Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofizial da.

5.-Euskara beste euskal lurralde eta gizatalderen ondare den aldetik eta erakunde akademiko eta kulturazkoak izan ditzaten harreman eta loturez gain, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskatu ahal izango dio Espainiako Gobernuari lurralde eta gizatalde horiek kokaturik dauden edota bizi diren Estatuekin kulturazko harremanak bideratzeko itunhitzarmenak izenpetu eta, hala badagokio, Gorte Nagusien aurrean, baimentzeko, aurkeztu ditzala, euskara zaindu eta bultzatze aldera.

## **7. artikulua**

1.-Euskal herritar izaera politikoa izango dute, Estatutu honen ondorioetarako, Estatuko lege orokorren arabera Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan administrazioherrikidetasuna dutenek.

2.-Atzerrian bizi direnek, hala nola beren ondorengoek, hala eskatzen badute, Euskal Herriko biztanleen eskubide politiko berberak izango dituzte baldin eta Euskadin izan badute azken administrazio-herrikidetasuna, Espainiako herritartasunari eutsi badiote, beti ere.

## **8. artikulua**

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari atxiki ahal izango zaizkio guztiz bere lurralde barruan kokaturiko beste lurralde eta udalerriak, honako baldintza hauek betez:

a) Doakion Udalak edota udalen gehiengoak atxikimendua eskatu dezala eta entzun dakiola lurralde edo udalerrri hori kokaturik dagoen Erkidego edo Probintziari.

b)Delako udalerrri edo lurralde horretako biztanleek hala erabaki dezatela, dagokionaren baimena lortu ondoren horretarako bereziki deitutako erreferendum bidez eta emandako baliozko botoen gehiengoz

onartuta.

c)Eusko Legebiltzarrak eta, ondoren, Estatuko Gorte Nagusiek Lege Organiko bidez onartu dezatela.

## **9. artikulua**

1.-Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak Konstituzioan finkatutakoak dira.

2.-Euskal herri-aginteek, beren eskumenen esparruan,

a)Herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

b)Bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute bereziki.

c)Enplegua gehitzea eta ekonomiaren oreka sustatzeko neurri lagungarriak hartuko dituzte.

d)Gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen



baldintzak eragitera eta oztopoak desagertaraztera bideratutako neurri oro hartuko dute.

e)Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute.

## **I TITULUA**

### **(Euskal Herriaren eskumenak)**

#### **10. artikulua**

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du honako gai hauetan:

1.-Udalbarrutien mugak, Estatutu honen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera lurralde historikoei dagozkien ahalmenei kalterik eragin gabe.

2.- Bere autogobernu-erakundeen antolaketa, araubidea eta jarduera, Estatutu honetako arauen esparruan.

3.- Eusko Legebiltzarrari, Batzar Nagusiei eta forualdundiei eragiten dien barruko hauteskunde-legeria,

Estatutu honetan aurreikusitako moduan eta Estatutu honen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera lurralde historikoei dagozkien ahalmenei kalterik eragin gabe.

4.- Toki-araubidea eta Euskal Herriko zein tokiadministrazioko funtzionarioen estatutua, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan finkatutakoari kalterik egin gabe.

5.- Euskal Herria osatzen duten lurralde historikoetako foru-zuzenbide zibil eta berezia, dela idatzia ala ohiturazkoa, gorde, aldatu nahiz garatzea, eta indar izango duen lurraldea finkatzea.

6.- Euskal Herriak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauak eta administraziojardunbideari zein ekonomia-administraziokoari dagozkion arauak.

7.- Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko jabetza publikoko eta ondareko ondasunak eta bere eskumeneko gaietako zorgune publikoak.

8.- Mendi-basoak, oihan-erabilera eta -zerbitzuak, abelbide eta larreak, Konstituzioaren 149.1.23 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

9.- Nekazaritza eta abelzaintza, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat.

10.- Barne-uretako arrantza, itsaski-bilketa eta arrain-hazkuntza, ehiza eta ibai eta aintziretako arrantza.

11.- Ur-erabilerak, ubideak eta ureztatzeak, urok Euskal Herrian zehar soilik igarotzen badira; energia ekoiztu, banatu eta garraiatzeko instalazioak, garraioa lurraldetik ateratzen ez bada eta ustiapenak beste probintziari edo Autonomia Erkidegori eragiten ez badio; metalurak, ur beroak eta lurpeko urak. Hori guztiori, Konstituzioaren 149.1.25 artikuluan erabakitakoari kalterik eragin gabe.

12.- Gizarte-laguntza.

13.- Irakaskuntza, kultura, arte, ongintza, eta sorospen-izaerako nahiz antzeko fundazio eta elkarteak, beren egitekoak nagusiki Euskal Herrian betetzen dituzten bitartean.

- 14.- Adingabekoen babes-kuradoretzako, espetxetako eta gizarteratzeko erakunde eta etheen antolaketa, araubidea eta jarduera, arlo zibileko eta zigor eta espetxe arloetako legeria orokorrarekin bat.
- 15.- Farmazia-antolamendua, Konstituzioaren 149.1.16 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta higieena, Estatutu honen 18. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz.
- 16.- Zientzia eta teknika ikerketa, Estatuarekin koordinaturik.
- 17.- Kultura, Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.
- 18.- Arte Ederren sustapenari eta irakaskuntzari lotutako erakundeak. Eskulangintza.
- 19.- Historia, arte, monumentu, arkeologia eta zientzia-ondarea, Autonomia Erkidegoak bere gain harturik ondare hori espropiazioaren eta lapurretaren aurka babesteko Estatuak ezar ditzan arau eta betebeharrak betetzea.
- 20.- Estatuaren izenean ez dauden artxibategi, liburutegi eta museoak.
- 21.- Nekazaritzako eta jabetzako ganberak, arrantza kofradiak eta merkataritza, industria eta itsasketa-ganberak, Estatuaren kanpomerkataritzaren alorreko eskumenari kalterik egin gabe.
- 22.- Lanbide-elkargoak eta lanbide tituludunen jarduera, Konstituzioaren 36. eta 139. Artikuluetan xedatutakoari kalterik eragin gabe. Estatuaren legeekin bat notarioak izendatzea.
- 23.- Kooperatibak, Gizarte-segurantzan sartu gabeko lagunaroak eta elkarlaguntzako elkarteak, merkataritza arloko legeria orokorrarekin bat.
- 24.- Euskal Herriaren beraren sektore publikoa, Estatutu honetako beste arauk eragiten ez dion bitartean.
- 25.- Euskal Herriko ekonomiaren sustapena, garapena eta plangintza, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat.
- 26.- Kreditu erakunde korporatiboak, publikoak eta lurraldekoak, eta aurrezki kutxak, Estatuak kredituaren eta banketxeen antolamenduz ezar ditzan oinarrien eta diru politika orokorraren esparruan.
- 27.- Barne merkataritza, baina prezio politika orokorrari, Estatuko lurraldean ondasunen joan-etorri askeari eta lehiaren babeserako legeriari kalterik egin gabe. Barruko feria eta azokak. Jatorrizko deiturak eta Publizitatea, Estatuarekin elkarlanean.
- 28.- Kontsumitzaile eta erabiltzaileak babestea, aurreko paragrafoko mugapen berarekin.
- 29.- Burtsa eta gainerako merkatalgai eta baloresalerosketarako guneak sortu eta arautzea, merkataritza legeriarekin bat.
- 30.- Industria, salbu eta arau berezien peko industriak ezartzea, handitzea eta lekualdatzea, dela segurtasunagatik, armadaren eta osasunaren interesagatik edota eginkizunotarako legeria berezia behar dutenak eta atzerriko teknologia eskuratzeko aurretiazko kontratuak behar dituztenak. Industria sektoreen berregituraketan, Euskal Herriari dagokio Estatuak erabakitako planak garatu eta gauzatzea.
- 31.- Lurraldearen eta itsasbazterraren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.
- 32.- Trenbideak, lehorreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioa, portuak, heliportuak, aireportuak eta Euskal Herriko Meteorologia Zerbitzua, Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedatutakoari kalterik eragin gabe. Garraio gaitan, zama kontrataguneak eta terminalak.

33.- Herri lanak, legez interes orokorrekotzat izendatu gabekoak edota egiterakoan beste lurralderi eragiten ez diotenak.

34.- Bide eta errepide arloan, lurralde historikoetako foru-aldundiek oso-osorik gordeko dituzte orain dituzten lege-araubidea eta eskumenak ala, hala dagokionean, Estatutu honen 3. artikulua arabera berreskuratzeko dituztenak, Konstituzioaren 148. artikuluko 1. zenbakiko 5. paragrafoan jasotako eskumenez gain.

35.- Kasino, joko eta apustuak, Kirol eta Ongintzako Elkarrekiko Apustuak izan ezik.

36.- Turismoa eta kirolak. Aisia eta olgeta.

37.- Euskal Herriko estatistika, bere helburu eta eskumenetarako.

38.- Ikuskizunak.

39.- Komunitatearen garapena. Emakumeen egoera. Haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.

## 11. artikulua

1.-Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumena du Estatuaren oinarritzko legeria lege bidez garatu eta bere lurraldean betearazteko, honako gaitan:

- a) Ingurumena eta ekologia.
- b) Derrigorrezko jabetza-gabetea, administraziokontratu eta emakidak, bere eskumenen esparruan, eta Euskal Herriko administrazioaren erantzukizun sistema.
- c) Euskal Herriko arrantza-sektorearen antolamendua.

2.- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumena ere du oinarri-arauak legez garatzeko, arauok finka dezaten moduan, eta bere lurraldean betearazteko, honako gaitan:

- a) Kredituaren antolamendua, bankuak eta aseguruak.
- b) Funtsezko baliabide eta zerbitzuak sektore publikorako gordetzea, monopolio-bidezkoak bereziki, eta interes orokorrak hala eskatzen duenean enpresak eskupean jartzea.
- c) Meategien eta energiaren araubidea. Baliabide geotermikoak.

## 12. artikulua

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuaren legeria betearaztea honako gai hauetan:

- 1.- Espetxe-legeria.
- 2.- Lan-legeria, gaur egun Estatuak arlo honetan dituen lan-harremanei buruzko ahalmen eta eskumenak bereganaturik. Halaber, Estatuak lan legeria betearazteko dituen zerbitzuak antolatzeko, zuzentzeko eta gainbegiratzeko ahalmena, Estatuaren Goi-ikuskaritzaz bat, lan-baldintzak gizartearen garapen eta aurrerapen mailari egokitzen saiatuz eta langileen kualifikazioa eta prestakuntza osoa bultzatuz
- 3.- Jabetza lerrokatzaileak, Kanbio eta Burtsako agenteak eta Merkataritza artekariak izendatzea. Dagozkien barrutiak finkatzen parte hartzea, hala dagokionean.
- 4.- Jabetza intelektuala eta industria-jabetza.
- 5.- Pisu eta neurriak. Metalen kontrastea.
- 6.- Euskal Herrian egindako nazioarteko azokak.

7.- Estatuaren sektore publikoa Autonomia Erkidegoaren lurralde-barrutian, non eta esku hartzerik izango duen egoki den kasu eta jardueretan.

8.- Interes orokorreko zat jotako portu eta aireportuak, Estatuak zuzeneko kudeaketa beretzat gordetzen ez duenean.

9.- Abiaturua eta helmuga Autonomia Erkidegoaren lurralde barruan dituen salgai- zein bidaiarigarraioaren antolamendua, nahiz eta Konstituzioaren 149. artikulua 1. zenbakiaren 21. Paragrafoak aipatzen dituen Estatuaren izeneko azpiegituretan zehar egin garraioa, eta Estatuak beretzat gorde dezan zuzeneko betearazteari kalterik egin gabe.

10.- Itsas-salbamendua eta isuri industriazko nahiz kutsakorak, euskal itsas-bazterrari dagozkion Estatuaren uretan.

## **II. TITULUA**

### **(Euskal Herriaren aginteak)**

#### **ATARIKO KAPITULUA**

##### **24. artikulua**

1.- Euskal Herriaren aginteak Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta Lehendakariaren bidez gauzatuko dira.

2.- Lurralde historikoek beren foru-erakundeak gorde eta antolatuko dituzte, Estatutu honen 3. Artikuluan xedatutakoarekin bat.

#### **I. KAPITULUA**

##### **(Eusko Legebiltzarra)**

##### **25. Artikulua**

1.- Eusko Legebiltzarrak legegintza-agintea du, aurrekontuak onartu eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza Bultzatu eta kontrolatzen du, beti ere Estatutu honen 37. artikuluan aipatutako erakundeen eskumenei kalterik eragin gabe.

2.-Eusko Legebiltzarra ukiezina da.

##### **26. artikulua**

1.- Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari kopuru berdinak osatuko du Eusko Legebiltzarra, bozketa orokor, aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.

2.- Lurralde historikoa da hautes-barruti.

3.- Proporziozko ordezkartzaren irizpideari jarraituz egingo da hautaketa lurralde historiko bakoitzaren baitan.

4.- Eusko Legebiltzarra lau urterako hautatuko da.

5.- Eusko Legebiltzarraren lege batek arautuko du bere kideen hautaketa, eta bere lur-esparruan betetako postu eta karguei eragin diezaieten hautaezintasun eta bateraezintasun arrazoiak finkatuko.

6.- Eusko Legebiltzarkideak ukiezinak izango dira beren kargualdian emandako boto zein iritziengatik.

Beren kargualdian ezin izango dira atxilotu ez atxiki Autonomia Erkidegoaren lur-esparruan egindako delituengatik, delitu gori-goria izan ezik eta, betiere, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiari dagokio erru-egozte, espetxeratze, auziperatze eta epaitzeari buruz erabakitzea.

Euskal Herriko lurraldetik kanpo, Auzitegi Gorenaren Zigor-arloko salan argitu ahal izango da erantzukizun penala, modu berean.

## **27. artikulua**

1.- Legebiltzarrak legebiltzarburua, Mahaia eta Batzorde Iraunkorra hautatuko ditu bere kideen artean. Osoko Bilkuratan eta Batzordetan jardungo du.

Legebiltzarrak bere barne-araudia finkatuko du, legebiltzarkideen gehiengo osoz onartu beharko dena.

Legebiltzarrak bere aurrekontua eta bere langileen estatutua onartuko ditu.

2.- Bilkuraldi arrunta urtean zortzi hilabetekoa izango da gutxienez.

3.- Biltzarrak bilkura bereziak egin ahal izango ditu Jaurlaritzaren, Batzorde Iraunkorraren nahiz legebiltzarkideen herenaren eskariz. Bilkura bereziak gai-zerrenda itxiaz deitu beharko dira eta gaizerrenda hori amaitutakoan bukatutzat emango dira.

4.- Legegintzarako ekimena legebiltzarkideei dagokie, Jaurlaritzari eta Estatutu honen 37. artikuluan aipatzen diren ordezkari-tza-erakundeei, legeek finkatutako moduan.

Legebiltzarkideek eskariak, galderak, itaunak eta adierazpenak aurkeztu ahal izango dituzte, bai Osoko Bilkuran bai Batzordeetan, araudi bidez finka daitezzen modutan.

Legebiltzarrak izapidetu beharreko lege-proposamenak aurkezteko herritarren ekimena lege baten bidez arautuko du Legebiltzarrak, Konstituzioaren 83. artikuluan aurreikusitako Lege Organikoak finkatu dezanarekin bat.

5.- Eusko Jaurlaritzako lehendakariak aldarrikatuko ditu Legebiltzarraren legeak eta, onartu eta hamabost eguneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, argitararaziko, eta baita Estatuko Aldizkari Ofizialean ere. Indarrean noiz sartuko den jakiteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunak aginduko du.

## **28. artikulua**

Eusko Legebiltzarrari dagokio, gainera:

a) Euskal Herriaren ordezkari izango diren senadoreak izendatzea, Konstituzioaren 69.5 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, Eusko Legebiltzarraren beraren lege batek finka dezan jardunbidearen bitartez, proportziozko ordezkari-tza egokia ziurtatuko duena.

b) Estatuko Gobernuari lege-egitasmo bat onar dezan eskatzea edota Kongresuko Mahaiari legeproposamen bat helaraztea, Biltzar horretan aldeztuko duten legebiltzarkideak ordezkari izendatuta.

c) Konstituzio-kalteko errekurtsua jartzea.

## **I KAPITULUA**

### **(Eusko Jaurlaritza eta Lehendakaria)**

#### **29. artikulua**

Eusko Jaurlaritza Euskal Herriko betearazte eta administrazio egitekoak dituen kide anitzeko organoa da.

#### **30. artikulua**

Jaurlaritzaren eginkizunak eta bere antolaketa, lehendakari bat eta zenbait sailburu izango dituen, eta baita Jaurlaritzako kideen estatutua Legebiltzarrak arautuko ditu.

#### **31. artikulua**

1.- Eusko Jaurlaritza bertan behera geldituko da Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ondoren, Legebiltzarraren babesa galdu ezker edota lehendakariak kargua utzi nahiz hiltzen bada.

2.- Bertan behera gelditutako Jaurlaritzak jardunean jarraituko du Jaurlaritza berria jabetu arte.

#### **32. artikulua**

1.-Jaurlaritzak Legebiltzarraren aurrean erantzuten du politikoki bere osoan, kide bakoitzak bere kudeaketaren erantzukizun zuzena gorabehera.

2.- Jaurlaritzako lehendakaria eta sailburuak beren kargualdian ezin izango dira atxilotu ez atxiki Autonomia Erkidegoaren lur-esparruan egindako delituengatik, delitu gori-goria izan ezik eta, betiere, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiari dagokio erru-egozte, espetxeratze, auziperatze eta epaitzeari buruz erabakitzea. Euskal Herriko lurraldetik kanpo, Auzitegi Gorenaren Zigor-arloko salan argitu ahal izango da erantzukizun penala, modu berean.

#### **33. artikulua**

1.-Jaurlaritzako lehendakaria Eusko Legebiltzarrak hautatuko du bere kideen artetik eta Erregek izendatuko du.

2.- Lehendakariak Jaurlaritzako sailburuak izendatu eta bereizten ditu, Jaurlaritzaren lanjarduna zuzentzen du eta bera da, batera, Euskal Herriaren ordezkari gorena eta Estatuaren ordezkari arrunta lurralde honetan.

3.- Eusko Legebiltzarrak lege baten bidez finkatuko ditu lehendakaria hautatzeko modua, bere ahalmenak eta baita Jaurlaritzaren Legebiltzarrarekiko harremanak.

### III. KAPITULUA

#### (Justizia Administrazioa Euskal Herrian)

#### 34. artikulua

1.- Euskal Herriko Justizia Administrazioaren antolakuntza Aginte Judizialaren Lege Organikoan aurreikusitakoarekin bat egituratuko da eta Auzitegi Nagusi bat izango du guztien gaineko, Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan eskumena izango duena eta prozesu-auzialdi guztiak agortuko dituena.

Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 152. artikuluan agindutakoarekin bat, probintziaz azpiko epai-barrutien antolaketan eta beren egoitza-hiria finkatzen parte hartuko du eta, betiere, beren mugak finkatuko ditu.

2.- Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko lehendakaria Erregek izendatuko du.

3.- Justizia Administrazioan herritarren egintza eta partaidetza bideratuko da Autonomia Erkidegoan, zinpeko epaimahaia delako erakundearen bidez, lege prozesalek finka dezaten modu eta zigorazibideetan

#### 35. Artikulua

1.- Magistratu, epaile eta idazkariak Aginte Judizialaren eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren lege organikoetan aurreikusitako moduan izendatuko dira, Euskal Foru Zuzenbidea eta euskara jakitea lehentasunezko meritu izango direla eta sorlekua edo herritasuna dela-eta salbuespenik egin gabe.

2.- Autonomia Erkidegoak eskatuz gero, Euskal Herriko magistratu, epaile eta idazkari lanpostu hutsak betetzeko lehiaketa eta oposiziotarako deia egin beharko du organo eskumendunak, Aginte Judizialaren Lege Organikoak xeda dezanarekin bat. Lehiaketa eta oposizio horietan bete gabe gelditu daitezten lanpostuak Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak beteko ditu, Aginte Judizialaren Lege Organikoak kasu horretarako jasotzen dituen arauak erabiliz.

3.- Autonomia Erkidegoari egokituko zaio, bere lurralde barruan, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileria eta bere jardunerako baliabide material eta ekonomikoz hornitzea, Aginte Judizialaren Lege Organikoan ahalmen hori Gobernuarentzat gorde dadin neurri berean eta langileria hornitzeko sistemetan Euskal Foru Zuzenbidea eta euskara jakitea lehentasunez balioetsiz.

4.- Autonomia Erkidegoak eta Justizia Ministerioak Euskal Herriak bereganatutako eskumena zuzen kudeatzeko behar besteko lankidetzak izango dute.

#### 36. artikulua

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak, epai-polizia gisa diharduenean, Justizia Administrazioaren zerbitzuan eta bere mende izango da, lege prozesalek xedatu dezaten moduan.

#### **IV. KAPITULUA** **(Lurralde Historikoetako erakundeak)**

##### **37. artikulua**

- 1.- Lurralde historikoetako foru-erakundeek bakoitzak berea duen lege-araubideari jarraituko diote.
- 2.- Estatutu honetan xedatutakoak ez du ekarriko lurralde historiko bakoitzak bereak dituen foruaraubidearen izaeraren zein bakoitzak bereziak dituen araubidearen eskumenen aldaketarik.
- 3.- Nolanahi ere, bakarreko eskumena izango du bakoitzak bere lurralde barruan honako gaiotan:
  - a) Beren erakunde propioen antolaketa, araubidea eta jarduera.
  - b) Beren aurrekontuak prestatu eta onartzea.
  - c) Probintzia-mugak gainditzen ez dituzten udalaz gaindiko lurralde-barrutiak.
  - d) Probintziaren eta udalen ondasunen araubidea, bai jabetza publikokoak zein ondarekoak eta herrilurrak.
  - e) Udal-hauteskundearen araubidea.
  - f) Estatutu honetan zehatu daitezkeen edota eskuordetu dakizkien guztiak.
- 4.- Eusko Legebiltzarrak zehaztu ditzan gaietan, arau bidez garatu eta beren lurraldean betearaztea ere egokituko zaie.
- 5.- Lurralde historikoetako ordezkari-organok hautatzerakoan bozketa orokor, aske, zuzen, isilpeko eta proportziozkoaren irizpideari jarraituko zaio, lurralde bakoitzeko eskualde guztiei ordezkari-egokia bideratuko dien hautes-barrutiek.

#### **V. KAPITULUA** **(Euskal Herriko aginteen kontrola)**

##### **38. artikulua**

- 1.- Eusko Legebiltzarraren legeak Konstituzio Auzitegiaren konstituziozkotasunaren kontrolaren menpe egongo dira bakarrik.
- 2.- Konstituzioaren 150.1 artikuluan aurreikusitakoetarako, bertan xedatzen denari jarraituko zaio.
- 3.- Euskal Herriko betearazte- eta administrazio-organok emandako egintza, erabaki eta araudi-erabaki aurka Administrazio-erakunde Auzien Jurisdikzioaren aurrean jarri daitezke errekursoak.

##### **39. artikulua**

Autonomia Erkidegoko erakundearen eta lurralde historiko bakoitzeko artean sor litezkeen eskumengatazka Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko lehendakariaren lehendakari-zapean Eusko Jaurlaritzak eta doakion lurraldeko Foru Aldundiak askatasunez izendatutako kide



berdinez osatutako bitartekaritza-batzorde batek ebatziko ditu, Eusko Legebiltzarraren lege batek finkatu dezan prozedurari jarraituz.

## **5. GAIA. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUA (II). III. TITULUA: OGASUNA ETA ONDAREA (40-45 ARTIKULUAK).**

### **III. TITULUA (Ogasuna eta ondarea)**

#### **40. artikulua**

Euskal Herriak autonomia-ogasuna izango du bere eskumenak egoki gauzatu eta finantzatzeko.

#### **41. artikulua**

1.- Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko zerga-alarreko harremanak tradiziozko foruetako ekonomia-itun edo hitzarmenen bidez bideratuko dira.

2.- Ekonomia-itunaren araubidearen edukiak honako irizpide eta oinarri hauek errespetatuko ditu eta horiei lotuko zaie:

a) Lurralde historikoetako erakunde eskumendunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute beren lurraldean, Estatuako zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-armonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jaso ditzan arauak eta Autonomia Erkidegoaren baitan helburu horietarako Eusko Legebiltzarrak eman ditzanei loturik. Ekonomia-ituna lege bidez onartuko da.

b) Foru-aldundi bakoitzak ordainaraziko, kudeatuko, kitatuko, bilduko eta ikuskatuko ditu zerga guztiak nork bere lurralde historikoaren barruan, mugazergari dagozkionak eta gaur egun zergamonopolioen bidez biltzen direnak ezik, beti ere Estatuarekiko lankidetzari eta bere goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe.

c) Lurralde historikoetako erakunde eskumendunek behar bezalako erabakiak hartuko dituzte Estatuak lurralde arruntean ezartzea erabaki dezan salbuespenezko eta unean uneko zerga-arauek zeinek bere lurraldean ezartzeko, arauok izan dezaten indarraldi berbera izango dutela.

d) Euskal Herriak Estatuari egingo dion ekarpena guztizko kupo bat izango da, lurralde bakoitzari dagokionaz osatuta, Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko Estatuaren betebeharrak guztietarako ekarpen gisa.

e) Aipatutako guztizko kupo osatzen duten lurralde historiko bakoitzari dagokion kupo finkatzeko, Bitariko batzorde bat sortuko da, alde batetik, Foru Aldundi bakoitzaren ordezkari bana eta Eusko Jaurlaritzaren beste horrenbestez osatuta eta, beste aldetik, Estatuaren administrazioaren ordezkari kopuru beraz. Horrela adostutako kupo lege bidez onartuko da Itunean zehaztuko den aldizkotasunez, Itunean bertan finkatu dadin jardunbidez urtero eguneratzea gora behera.

f) Konstituzioaren 138. eta 156. artikuluetan aipatzen den elkartasun-irizpidearekin bat aplikatuko da Itunaraubidea.

**42. artikulua**

Euskal Herriko ogasun orokorraren sarrerak honako hauek izango dira:

- a) Foru-aldundiek egin ditzaten ekarpenak, lurralde historikoek Euskal Herriaren aurrekontugastuetarako emandako laguntza direnak. Eusko Legebiltzarraren lege batek finkatuko ditu banaketa zuzenerako irizpideak eta, irizpideon arabera, lurralde historiko bakoitzaren ekarpenak adostu eta gauzatzeko erabiliko den prozedura.
- b) Eusko Legebiltzarrak ezarri ditzan Euskal Herriko zerga propioen emaitza, Konstituzioaren 157. artikuluan eta Autonomia-erkidegoen Finantzaketarako Lege Organikoan agindutakoarekin bat.
- c) Lurraldearteko Berdinketa-funtsetik jasotako eskuraketak eta Estatuko aurrekontu Orokorraren konturako gainerako emaitzak.
- d) Bere ondarearen etekinak eta zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.
- e) Kreditu-eragiketen eta zor-jaulkipenen emaitza.
- f) Konstituzioan eta Estatutu honetan erabakitakoaren arabera finkatu litezken beste diru sarrerak.

**43. artikulua**

1. Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatutako zerbitzu eta eskumenei lotutako Estatuaren zein beste herri-erakunderen ondasun eta eskubideak Erkidegoaren ondarean sartuko dira.
2. Eusko Legebiltzarrak erabakiko du Euskal Herriko zein organoren esku jarri ondasun eta eskubideon jabetza edo erabilera.
3. Eusko Legebiltzarraren lege batek arautuko du Euskal Herriaren ondarearen administrazioa, babesa eta iraunaraztea.

**44. artikulua**

Euskal Herriko aurrekontu orokorrek jarduera publiko orokorraren diru-sarrera eta gastuak hartuko dituzte eta Eusko Jaurlaritzak prestatuko ditu eta Eusko Legebiltzarrak onartuko, berak finkatuko dituen arauekin bat.

**45. artikulua**

1. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak herri-zorra jaulki ahal izango du inbertsio-gastuak finantzatzeko.
2. Jaulkipenen zenbatekoak eta zer-nolakoak kreditu-politikaren antolamendu orokorraren arabera finkatuko dira eta Estatuarekiko koordinazioan.
3. Jaulkitako titulu-agiriak herri-dirutzat joko dira ondorio guztietarako.

## **6. GAIA. ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA (I). 1983KO MARTXOAREN 7KO FORU ARAUA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKOA (1-14 ARTIKULUAK).**

**Arabako Lurralde Historikoaren Erakundetzari buruzko Martxoaren 7ko 1983 FORU ARAUA (INDARREAN DAGOEN TESTUA)<sup>1</sup>**

### **AURREKO TITULUA: DISPOSIZIO OROKORRAK**

#### **1. atala**

Historiaren *tradizioari jarraiki, Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia dira Arabako Lurralde Historikoko Foru Erakundeak, Lurraldea Talde edo Koadrila eta Ermandadez osatua egonik. (aldatua, azaroaren 29ko 19/2015 Foru Arauaren bidez)*

#### **2. atala**

Arabako Lurralde Historikoko Foru Erakundeak beren berariazko ahalmenak erabiliko dituzte, Legeari eta Zuzenbideari erabat men eginez.

#### **3. atala**

Araba Lurralde Historikoaren Foru Erakundeek bere ihardun publikoa beteko dute eskumen-esparru orokorrean jarraingoak mugatuan:

- a) Espainiako Konstituzioa.
- b) Euskadiko Autonomi Estatutua.
- c) Komunitate Autonomoko erakunde orokorren eta lurralde historikoen arteko harremanak zuzentzen dituzten legeak eta gainerako ordezkarietazko edo transferentziatzko disposizioak.
- d) Itun Ekonomikoari buruzko Legea eta zerga gaietako beste disposizioak.

---

<sup>1</sup> 1984ko abenduaren 20ko Foru Arauak, (ALHAO 7 zk., 1985/01717); martxoaren 25eko 6/86 Foru Arauak (ALHAO 38 zk., 1986/0404); abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauak (ALHAO 2 zk., 1988/01/08); martxoaren 14ko 8/2011 Foru Arauak (ALHAO 35 zk., 2011/03/23); eta azaroaren 29ko 19/2015 Foru Arauak (ALHAO 144 zk., 2015/12/09, 5272 or.) egindako aldaketak jasotzen ditu. Lehengo Foru Arau horrek 8.3., 9.1., 10., 11., 25.3. artikulua eta Xedapen Iragankorra indargabetzen ditu, bigarrenak 7.1. artikulua aldatzen du eta hirugarrenak 3., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 14., 22., 25., 26., 29., 31. eta 32. artikuluen edukia osorik edo zati batean aldatzen du. Jatorrizko testua (ALHAO 28 zk., 1983/03/08)

e) *Jaurpide arruntean Aldundiek diharduen eskumen-esparrua xedatzen duten legezko xedapenak. (Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez).*

f) Erakundearen antolakuntzari buruzko Foru Arau hau.

## I. TITULUA: BATZAR NAGUSIAK

### 4. atala

1. Baltzar Nagusiak Lurralde Historikoko herri ordezkariak eta partaidetzarako erakunde gorena dira.

2. Baltzar Nagusiek araugintza-ahalmena eta *arauak garatzeko ahalmena dituzte* Foru Arau honek finkaturiko mugekin, Diputatu Nagusia hautatzen dute, Foru Aldundiaren aurrekontua onartzen dute beronek proposaturik, eta Foru Aldundiaren jarduera kontrolatzen dute **(Aldatua martxoaren 14ko 8/2011 Foru Arauaren bidez)**

### 5. atala

*Batzar Nagusiek emandako izaera orokorreko xedapenak, hots, foru arauak, foru aldundiaren erregelamendu eta ebazpenen gainera daude. Zerga foru arauak Konstituzio Auzitegian baino ezin dira aurkatu. Gainerako foru arauak administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioan ere epaitu ahal izango dira. (Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez, eta martxoaren 14ko 8/2011 Foru Arauaren bidez).*

### 6. atala

1. *Batzar Nagusien ahalmena da:*

a) *Lurralde historikoen eskumen eskusiboak diren gaiak buruzko ahalmen arauemailea, Autonomia Estatutuarekin eta Autonomia Erkidego osoko Erakundeekin eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeekin arteko harremanei buruzko Legearekin bat etorritik. (Aldatua martxoaren 14ko 8/2011 Foru Arauaren bidez)*

b) *Autonomia erkidegoaren eta estatuaren legeak garatzeko xedapenak onartzeko, arauak garatzeko ahalmena, baldin eta ahalmen hori berariaz aitortu ez bazaio foru aldundiari. (Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez eta martxoaren 14ko 8/2011 Foru Arauaren bidez)*

c) Foru Aldundiaren jarduera kontrolatu eta bultzatzea, horretarako informazio egokia izanik, helburu horiek bete ahal izateko.

2. Edozein modutan, horretaz gainera Batzar Nagusiei dagokie:

a) Ondorengo gaiak onartzea:

1.- Lurralde Historikoaren aurrekontuak, kontu orokorrak eta finantzaketa eta kreditu eragiketak.

2.- Lan eta Zerbitzuetarako Foru Egitasmoa, Foru Aldundiak proposaturik.

3.- *Ekonomia-Hitzarmen Legearen 45 atalaren 1 apartatuak aipatzen duen* Lekuko Korporazioen berenak diren zergak arautzea, baita kasu horretan bezala, Lurralde

Historikoaren Udalen Finantzaketa Jaurpide Orokorrena ere. **(Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez).**

4.– Batzar lokalen finantzaketa babesteko erregimen orokorra, Itun Ekonomikoaren Legeko 45. artikuluko 2. zatiari jarraituz.

5.– Lurralde Historiko guztiari dagozkion arlokako egitasmoak.

6.– Lurralde Historikoaren antolakuntza eta banaketa politiko-administratiboa.

7.– Udalerrien arteko mugen aldaketak.

b) Foru Aldundiaren proposamenak berrestea honako kasuetan:

1.– Lurralde Historikoak ahalmenak bereganatzea.

2.– Erakunde amankomunei ahalmenak uztea.

3.– Eusko Jaurlaritzarekiko, Estatuarekiko, eta beste Lurralde Historiko, Elkarte Autonomo edo Probintziekiko hitzarmenak.

4.– Legeek eman edo Foru Arau honek aitortzen dizkieten gainerakoak.

## 7. atala

1. *Araugintza-arioa Foru Aldundiari, Batzar Nagusietako Batzarkideei, eta dagokion Foru Arauan xedatzen den terminoetan araugintza-ario popularra erabiliz biztanleei dagokie.* **(Aldatua; lehenik martxoaren 25eko 6/86 Foru Arauaren bidez eta, gero, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez).**

2. *Batzar Nagusietako Batzarkideek, araubidez jarriko diren terminoetan galderak, erantzun-eskeak eta mozioak egin ahal izango dute.* **(Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez).**

## 8. atala

1. Batzar Nagusiak Osoko Bilkuraren eta Batzordeen bidez jardungo dira.

2. *Bere barneko arauteriarekin bat Osoko Bilkuraren eztabaidak zuzendu eta antolatuko dituen Mahai bat Batzar Nagusiek izendatuko dute.* **(Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez).**

3. *Mahaia Lehendakari batek, bera Batzar Nagusietakoa izango delarik, eta bat edo gehiago Lehendakariorde eta Idazkariak osatuko dute.* **(Hasieran, Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudiari buruzko abenduaren 20ko Foru Arauak indargabetu zuen eta gero, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauak osatu zuen).**

4. Foru Aldundiko kideetako inork ezin parte hartuko du Mahaiari.

5. Batzar Nagusien Batzordeak ohikoak eta berezi edo ezohikoak izan daitezke.

## 9. atala

1. *Batzar Nagusiek osoko bilkurak bertako Lehendakariak deitzen duenean egingo dira. Deia bere Arauterian xedatutako kasu, era eta baldintzetatikakoa izango da.* **(Hasieran, Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudiari buruzko abenduaren 20ko Foru Arauak indargabetu zuen eta gero, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauak osatu zuen).**

2. Nolanahi ere, Batzar Nagusien Osoko Bilkura urtean bi aldiz bilduko da, ohitura historikoei jarraituz.
3. Arautegiari jarraituz deitzen ez diren Batzarkideen bilerek ez dute inolako lotura-indarrrik izango Batzar Nagusientzat, ezta beren erabakiek ere gainerako aginte publikoentzat.
4. Batzar Nagusien Osoko Bilkuraren bilerak irekiak izango dira, Batzar Nagusiek berek bestelakorik erabakitzen dutenean izan ezik.

#### **10. atala**

*Batzordeak bakoitzak bere Lehendakariak deituko ditu Mahaiari bere berri emanaz. (Hasieran, Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudiari buruzko abenduaren 20ko Foru Arauak indargabetu zuen eta gero, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauak osatu zuen).*

#### **11. atala**

1. *Batzar Nagusietako Batzorde Iraunkorrak bere agintepideak zainduko ditu eta bere eginkizunak bilkurarteko aldietan beteko ditu.*

2. *Bozeramaileen Batzordea Batzar Nagusietako Lehendakariak presidituko du Idazkari baten laguntzarekin eta bertan Batzarkide Taldeen Bozeramaileak partaide izango dira. Bere erabakiak Batzarkide bakoitzari dagokion botoak heinekoen arabera hartuko ditu.*

**(Hasieran, Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudiari buruzko abenduaren 20ko Foru Arauak indargabetu zuen eta gero, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauak osatu zuen).**

#### **12. atala**

1. Erabakiak hartzeko, Batzar Nagusiek arautegiari jarraituz bilduta egon behar dute, bertako kideen gehiengo osoa bertan dela.

2. Erabaki horiek baliozkoak izateko, bilerara joandako kideen gehiengoak onartu behar ditu, Arau honetan finkatzen diren edota barne-arautegian finka litezkeen gehiengo berezien kalterik gabe.

3.- *Edozein modutan, oraingo Foru Arauaren eta Funtzionamendu Araudiaren aldaketarako erabateko gehiengo eskatuko du. (Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez)*

#### **13. atala**

1. Batzar Nagusien Foru Arauak Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira.

2. Gainerako erabaki eta ebazpenei dagokienez, barne-arautegiaren arabera jokatu da.

**14. atala**

1. *Batzarkideek bere karguak betetzegatik diru-ordainen eskubidea izango dute. (Aldatua, abenduaren 21eko 24/1919 Foru Arauaren bidez)*
2. *Batzarkide Taldeek bertako kideen kopuruaren heinean izendapen bat izango dute, eta Taldegatik osagarri finko bat. (Aldatua, abenduaren 21eko 24/87 Foru Arauaren bidez)*



**7. GAIA. ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA (II). 1983KO MARTXOAREN 7KO FORU ARAUA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKOA (15-33 ARTIKULUAK).**

**II. TITULUA: FORU ALDUNDIA**

**15. atala**

*Arabako Foru Aldundiak, kide anitzeko organo den aldetik, lurralde historikoaren legezko ordezkaritza dauka, eta hura gobernatu eta administratzeko ardura hartzen du, bere eskumen esparruan, legearen arabera erregelamendu-ahalmena erabiliz. Era berean, ahalmen arauemailea eta arauak garatzeko ahalmena ere aldundiarena da, autonomia erkidegoaren edo estatuaren legeekin bat etorriz, foru arau bidez onartuta, Batzar Nagusiek eskuordetzan emandako kasuetan. (Aldatua martxoaren 14ko 8/2011 Foru Arauaren bidez)*

**16. atala**

Auzitegiek kontrolatzen dituzte Foru Aldundiaren araugintza-ahalmena eta haren jarduera administratiboaren legezotasuna, bai eta haren justifikabide diren helburuetara egokitzen dela ere.

**17. atala**

1.- *Foru arauak garatzen dituzten dekretuak onartzeko eskumena ere foru aldundiaren erregelamendu-ahalmena da. (Aldatua martxoaren 14ko 8/2011 Foru Arauaren bidez)*  
2.- Nolanahi ere, Foru Aldundiak berak dauka bere antolakuntzarako barne-arauegiak onartzeko ahalmena.

**18. atala**

Foru Aldundiaren kideak Diputatu Nagusia eta hainbat Foru Diputatu, gehienez ere hamar, dira.

**19. atala**

Diputatu Nagusiak Foru Batzarraren ordezkaritza dauka, Foru Diputatuen ekintzak zuzendu eta koordinatzen ditu, dekretuak ematen ditu eta haien argitarapena erabakitzen du, eta legeek eta foru arauak ematen dizkieten gainerako zereginak betetzen ditu.

**20. atala**

1. Foru diputatuak Diputatu Nagusiak haiek izendatzeko dekretuan agindutako zereginak bete behar dituzte.  
2. Batzarkide ez diren foru diputatuak Batzar Nagusien bileretara joan daitezke, hitz egiteko ahalmenarekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.

**21. atala**

Foru Aldundiaren aginte-arlo bakoitzaren barruan, zuzendaritza nagusi bereziak izendapen libreko kargu izango dira.

**III. TITULUA: BATZAR NAGUSIEN OSAKETA  
ETA FORU ALDUNDIAREN IZENDAPENA**

**LEHEN ATALBURUA: BATZAR NAGUSIEN OSAKETA**

**22. atala**

1. Batzar Nagusiek gehienez ere 60 batzarkidez osaturik egon behar dute; batzarkide horiek ordezkari-tza proportzionaleko botaketa orokor, libre, zuzeneko eta isilpeko batzuen bidez hautatuak izan behar dute.

2. *Batzar Nagusietako Batzarkideen agiritepidearen iraupena Lurralde Historikoaren Udaletako enarekin* parekatua izango da. **(Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez).**

**23 atala**

Batzar Nagusien Hauteskundeetarako Arabako Lurralde Historikoa bertako barruti guztien ordezkari-tza egokia ziurta dezaten hautaketa barrutietan banatuko da.

**24 atala**

1. Batzar Nagusietarako hauteskunde deialdia Diputatu Nagusiak egingo du, haietarako eguna eta epeak Udaltarakoekin bat eginez.

2. Batzar Nagusietarako hauteskunde deialdiren dekretuak haien aginte bukaera dakar.

**25 atala**

1. Batzar Nagusiak Batzarkideen aldarrikatze ofizialaren egunetik hurrengo hamar egunetako epe barruan eratuko dira.

2. Batzar Nagusiek beraien eraketa saioan bertan Mahairi izandatzeari egingo diote.

3. *Batzarrak eratu ziren egunetik hasita 30 eguneko epe luzenaren barne, Osoko Bilkura bat egingo da, Eguneko Lan-zerrendaren puntu bat bakarrarekin, Diputatu Nagusiaren hautatzea. (Hasieran, Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudiari buruzko abenduaren 20ko Foru Arauak indargabetu zuen eta gero, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauak osatu zuen).*

## BIGARREN ATALBURUA: FORU ALDUNDIAREN IZENDAPENA

### 26. atala

1. Batzar Nagusiek beren kideen artetik aukeratu behar dute Diputatu Nagusia, isilpeko boto bidez.
2. Batzar Nagusietan ordezkaturako talde politiko edo koalizio bakoitzak Diputatu Nagusi kargurako hautagai bana aurkeztu ahal dio Mahaiari.
3. *Diputatu Nagusia hautatzeko beharrezkoak izango dira lehen botaketan Batzarkideen legezko zenbakiaren gutxienez erabateko gehiengoa eta hurrengoan gehiengo soila. Horretarako botorik ez emateak ez dira zenbatuko. (Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez).*
4. Aurreko zatian aipatzen den bigarren bozketaren ondoren ere berdinketa egonez gero, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu duen talde politiko edo koalizioaren hautagaia izendatuko da Diputatu Nagusi.

### 27. atala

1. Diputatu Nagusiak berak izendatu eta kargutik kentzen ditu foru diputatuak.
2. Diputatu Nagusiak haren Ordezko bat edo gehiago izenda ditzake foru diputatuen artetik.

### 28. atala

1. Batzar Nagusiek arau baten bidez erregulatu beharko dute Foru Aldundiko kideen bateraezintasun erregimena.
2. Nolanahi ere, Diputatu Nagusi kargua bateraezina da edozein udaletako alkate edo zinegotzi izatearekin, bai eta, halaber, Batzar Nagusietako Lehendakariarekin ere.

### 29. atala

1. *Foru Aldundiak uzten du Batzar Nagusien agintepidea amaitu delako, konfidantza galdu duelako edo Diputatu Nagusiaren uzte edo heriotzagatik. (Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez).*
2. Bere eginkizunari utzi dion Aldundiak Diputatu Nagusi berria izendatu arte jarraitu behar du jardunean, betekizun administratiboen jarraitasuna bermatzeko eta aginte-eskualdaketa behar bezala egin ahal izateko.

#### IV. TITULUA: BATZAR NAGUSIEN ETA FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HARREMANAK

##### 30. atala

1. Diputatu Nagusia bere gestioaren eta Foru Aldundiarenaren erantzule politikoa da Batzar Nagusien aurrean.
2. Foru Aldundiko kide bakoitza, nor bere alorrean, bere gain hartutako gestioaren erantzule politikoa da Batzar Nagusien aurrean.
3. Foru Aldundiak bere gain hartutako interesen gestioaren erantzukizun politikoa dauka, solidarioki, Batzar Nagusien aurrean.

##### 31 atala

Batzar Nagusietako Batzarkideek, osatzen duten Batzordearen edo partaide diren Batzarkide taldearen Bozeramailearen bidez, bere eginkizunak betetzeko beharrezko iruditzen zaion argipidea, *baita Batzordearen aurrean Diputatuen presentzia ere*, Lehendakariari eska diezaioke eta honek Foru Aldundiari egin beharko dio. **(Aldatua, abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauaren bidez).**

##### 32. atala

1. Batzar Nagusiek Foru Aldundiaren erantzukizun politikoa eska dezakete, batzarkideen gehiengoak onartu beharko duen zentsura-mozio baten bidez.
2. Zentsura-mozioa gutxienez hamabost batzarkidek sustatu behar dute, Diputatu Nagusi kargurago hautagai bat proposatuz.
3. Zentsura-mozioa bozketara eraman ahal izateko, aurkezten denetik bost egun gutxienez igaro behar dira. Epe horretako lehen bi egunetan aukerako beste mozio batzuk ere aurkeztu ahal izango dira.
4. Zentsura-mozioa onartzen bada, Diputatu Nagusiak bere karguari utzi behar izango dio.
5. Zentsura-mozioa ez badute onartzen batzarkide gehienek, moziogileek sei hilabete igaro arte ezingo dute beste bat aurkeztu.
6. *Era berean Diputatu Nagusiak, bere politika orokorrari buruzko konfidantza-gaia Batzar Nagusiei planteiatu diezaieke, zer ukatzen bazaio bere utzipena sortuko da. Konfidantza onartutzat joko da botoen gehiengo soila lortzen duenean.* **(Abenduaren 21eko 24/1987 Foru Arauak gehitutako paragrafoa).**

##### 33. atala

Foru Aldundiak, Diputatu Nagusiaren bitartez, adierazpen publiko orokor bat egin behar du urtero, eta haren ondoren eztabaida egingo da, baina inolako bozketarik gabe.

X

**8. GAIA. ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA (III). 52/1992 FORU ARAUA, ABENDUAREN 18KOA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ANTOLAMENDU, FUNTZIONAMENDU ETA ARAUBIDE JURIDIKOARENA (3, 4, 17, 18, 38 ETA 39 ARTIKULUAK). 4/2000 FORU ARAUA, OTSAILAREN 21EKOA, ARABAKO FORU ALDUNDIKO, BERE ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ETA FORU SOZIJETATE PUBLIKOETAKO GOI KARGUDUNEN ARAUBIDEA ARAUTZEN DUENA (1-6 ARTIKULUAK).**

**52/1992 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenari buruzkoa. INDARREAN DAGOEN TESTUA<sup>2</sup>**

## I. TITULUA

### FORU GOBERNUA

#### I. KAPITULUA

#### Diputatuen Kontseilua

Lehenengo Atala

#### Izaera eta osakera

### 3. Artikulua

1.- Diputatuen Kontseilua Foru Aldundiaren erakunde kolegiatua da, Diputatu Nagusiaren zuzendaritzapean politika orokorra jartzen duena, Foru Administrazioa zuzentzen duena eta Legeek eta Foru Arauek atxikitzen dizkieten gainerako eskumenak erabiltzen dituena.

2.- *Horretarako, gobernuaren jarduna, araugintzako ekimena, erregelamenduak emateko ahalmena eta betearazte funtzioa betetzen ditu. Era berean, arauak emateko ahalmena erabiltzea eta arauak garatzekoarena egokituko zaizkio Estatuko edo Autonomia Erkidegoaren legeen arabera eta foru araudiak aurreikusitako eskuordetze egoeretan. (Aldatua, martxoaren 14ko 9/2011 Foru Arauaren bidez)*

<sup>2</sup> (Hutsen zuzenketa: ALHAO 25 zk., 1993-03-03) Martxoaren 9ko 6/2001 Foru Arauak (88. artikulua aldatzen du) (ALHAO 32zk., 2001/03/16; apirilaren 19ko 6/2004 Foru Arauak (54. artikuluar 3. atala gehitzen dio) (ALHAO 48zk., 2004/04/30); otsailaren 18ko 5/2008 Foru Arauak (33., 34. eta 46. artikulua aldatzen ditu eta 36. eta 37. artikulua ezabatzen ditu) (ALHAO 25zk., 2008/02/27); eta martxoaren 14ko 9/2011 Foru Arauak (3.2., 7., 97., eta 99. artikulua aldatzen ditu)(ALHAO 35zk., 2011/03/23) egindako aldaketak jasotzen ditu. Jatorrizko testua 1993-01-05eko ALHAOn (9. zk., 418. or.) argitaratu zen.

#### **4. Artikulua**

- 1.- Diputatuen Kontseilua Diputatu Nagusiak, Diputatu Nagusiordeak edo Nagusiordeek eta Foru Diputatuak osatuko dute.
- 2.- Bere bileretarako, Diputatu Nagusiak Foru Diputatuen artetik Kontseiluko Idazkari bat izendatuko du.

### II. KAPITULUA

#### **Diputatu Nagusia**

Lehenengo Atala

#### **Izaera eta Izendapena**

#### **17. Artikulua**

Diputatu Nagusiak Foru Aldundiaren ordezkariak dira, eta horregatik, Lurralde Historikoarena, Diputatuen Kontseiluaren ekintza zuzentzen du eta bertako kideen ihardunak eta egitekoak koordinatzen, bere kudeaketan hauen erantzukizunaren kaltetan gabe.

#### **18. Artikulua**

- 1.- Diputatu Nagusiak, bertako kideen artetik Biltzar Nagusiek hautatua, bere karguaren jabe beren aurrean egingo da karguaren zin edo hitz-ematea eginez, bertako Funtzionamendu Araudian ezarritakoarekin bat.
- 2.- Diputatu Nagusiaren hautaketa Erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

### III. KAPITULUA

#### **Foru Diputatuak**

Lehenengo Saila

#### **Izaera eta izendapena**

#### **38. Artikulua**

- 1.- Foru Diputatuak Foru Aldundiko kideak dira eta Diputatuen Kontseilua osatzen dute; Aldundiak Foru Administrazioa antolatzeko dituen Saitetako buruak dira, eta horiek erantzukizun osoz zuzentzen dituzte eta ordezkutzen.
- 2.- Saitetako buruez gain karterarik gabeko Diputatuak izendatu ahalko dira.

#### **39. Artikulua**

- 1.- Foru Diputatuak izendatzea eta kargutik kentzea Diputatu Nagusiari dagokio.
- 2.- Izendatzeko Dekretuan zein Saitetako buru diren eta, karterarik gabeko Foru Diputatuak badira, zein diren oro har dagozkien zereginak adieraziko da.
- 3.- Foru Diputatuen zerbitzu harremana karguaren jabetza hartzen duenean hasiko da, eta kargua haien ordezkoei hartzen dutenean edo kargu-uztea Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean amaituko da.

**4/2000 FORU ARAUA, otsailaren 21ekoa, Arabako Foru Aldundiko eta haren foru erakunde autonomo eta sozietate publikoetako goi kargudunen eta Arabako Foru Aldundiko behin-behineko langileen erregimena arautzen duena (INDARREAN DAGOEN TESTUA)<sup>3</sup>**

## I. TITULUA .- XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua

*Arabako Foru Aldundiko eta haren foru erakunde autonomo eta sozietate publikoetako langileak, baldin eta goi kargudun edo behin-behineko langile izendatuak izan badira, foru arau proiektu honetan xedatutakoen eta hura aplikatzeari darizkion gainerakoen pean egongo dira. (Aldatua, otsailaren 13ko 2/2012 Foru Arauaren bidez)*

### 2. artikulua

*1. Goi kargudun dira Diputatuen Kontseiluak edo foru sozietate publikoetako administrazio kontseiluek zuzendaritza edo goi kudeaketa lanak egiteko izendatutakoak. Zuzendari izango dira foru aldundiko egitura peko zuzendaritza bateko buru izateko izendatuak eta zuzendari-kudeatzaile foru erakunde autonomo edo sozietate publikoetako buru lanak egiteko izendatuak.*

*Arabako Foru Aldundian zuzendari lanetan dihardutenek beren gain har dezakete erakunde autonomoen lehendakaritza edo zuzendaritza, bai eta haien administrazio organoetako zein foru aldundiaren partaidetza duten merkataritza sozietateen administrazio organoetako kide izan ere. Azken horietan kontseilari eskuorde kargua izan dezakete eta administrazio kontseiluak esleitutako eskumenak izango dituzte.*

*2. Behin-behineko langile izango dira konfiantza edota aholkulari berezi zereginak betetzeko izendatuak. Lanpostu horiek aldi baterako beteko dituzte horriko horiek eta lanpostuak izen horrekin agertuko dira lanpostu zerrendan. (Aldatua, otsailaren 13ko 2/2012 Foru Arauaren bidez)*

### 3. artikulua

*1. Goi kargudunen eta behin-behineko langileen zerbitzu harremanak, beren izendapen eta uzte Erabakietan, hurrenez hurren, ezartzen diren egunetan hasi eta bukatzen dira. Berariaz aipatu ezean, ulertuko da Erabakiek ALHAOn argitaratzen diren egunean sortzen dituztela ondorioak, Merkataritza Erregistroan ere izena eman behar badira ere.*

*2. Behin-behineko langileen harremana hasi eta amaituko da izendapen eta uzte Erabakietan, hurrenez hurren, ezartzen den egunean, eta ALHAOn emango da argitara. Edozein modutan, uztea, haien izendapena proposatu zuenak bere karguari uzten dion egun berean gertatuko da. Foru Administrazioak berariazko ebazpena emango dio interesdunari. (Aldatua, otsailaren 13ko 2/2012 Foru Arauaren bidez)*

### 4. artikulua

*1.- Goi kargudunen eta behin-behineko langileen ordainsariak, ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuak Betearazteko Arauan ezarritakoak izango dira.*

*2.- Hala ere, goi kargudunek edo behin-behineko langileek, beren izendapenaren aurretik, aurrekontuak betearazteko arautegian oro har kargu horietarako ezartzen dena baino handiagoko lansaria duen lanpostu bat edukiko balute Arabako Foru Aldundian, edo pertsonalki lansari handiagoa aitorturik edukiko balute, azkenengo horiek jasotzen jarraitu ahal izango dute.*

<sup>3</sup> 2/2004 Foru Araua, urtarrilaren 26ko 2/2004 (ALHAO 14 zk., 2004/02/02. Gehig.); otsailaren 18ko 6/2008 Foru Araua (ALHAO 25. zk., 2008/02/27. Gehig.) ; eta otsailaren 13ko 2/2012 Foru Araua (ALHAO 22 zk., 2012/02/22. Gehig.) egindako aldaketak jasotzen ditu. Jatorrizko testua (ALHAO 9zk., 1993/01/25). Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 74. Artikuluan ezarritakoa garatzen da (ALHAO 9zk., 1993/01/25)

## 5. artikulua

1.- Goi kargudunei eta behin-behineko langileei Gizarte Segurantzaren alta emango zaie eta Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren pentsutan ordainduko dira dagozkien enpresa edo korporazio kuotak.

2.- Izendapenaren aurretik, kotizatzen jarraitzea onartzen duen derrigorrezko aurreikuspeneko beste edozein erregimenetan afiliatuta egon badira, afiliazio hori mantendu ahal izango da, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren pentsutan izango dira dagozkien kotizazioak.

## 6. artikulua

*Arabako Biltzar Nagusiek, goi kargudunen eta behin-behineko langileen kopurua, dedikazioa eta lansari erregimena Arabako Biltzar Nagusietako diputatu nagusiaren agintaldiaren hasieran finkatuko dute aurrekontua burutzeko Arauan dagokion aldageta eginez edo Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 74.3 artikulua aurreikusitakoaren bidez. (Aldatua, otsailaren 13ko 2/2012 Foru Arauaren bidez) <sup>4</sup>*

---

<sup>4</sup> 21/2015 Foru Araua, abenduaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2016rako aurrekontua gauzatzeari buruzkoa (ALHAO 152 zk., 2015/12/30)

HAMAİKAGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Arabako Foru Aldundiko goi mailako kargudunen eta behin-behineko langileen gehieneko kopurua.

Arabako Foru Aldundiko, bere organismo autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi mailako kargudunen araubidea eta Arabako Foru Aldundiko behin-behineko langileen araubidea arautzen duen otsailaren 21eko 4/2000 Foru Arauko 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2015-2019 agintaldian Arabako Foru Aldundiko goi mailako kargudunen eta behin-behineko langileen gehieneko kopurua honakoa izango da:

- Hemezortzi kargudun, aldundiko eta erakunde autonomoetako zuzendariak edo foru sozietate publikoetako zuzendari-kudeatzaileak izango direnak.
- Hamar behin-behineko langile, konfiantzako postuetan arituko direnak. Diputatu nagusiaren eta foru diputatuen idazkarientzat gordeta egongo dira postu horiek.
- Aholkularitza bereziko behin-behineko sei langile.



**11. GAIA. ENPLEGU PUBLIKOA (III). ~~5/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, URRIAREN 30EKOA, ONARTZEN DUENA ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATERATUA. ADMINISTRAZIO EGOERAK (85-92 ARTIKULUAK). 6/1989 LEGEA, EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARENA. HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA (97-99 ARTIKULUAK).~~**

**6/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa**

## **V IDAZPURUA HIZKUNTZ NORMALKUNTZA**

### **97. Atala.–**

1.– Euskera eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza o fiziaalak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan.

2.– Gorago esandakoetarako, Administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitzak bere hizkuntz eskakizuna jarria izango du. Hizkuntz-eskakizunak zehaztuko ditu lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskerazko hizkuntz gaitasun-mailak. Hizkuntz eskakizuna aginduzko ez den artean, euskeraz jakiteari, bai lanpostuak betetzeko eta kanpoko aukeraketak egiteko, merezimendu gisa eman beharko zaion balioa zehazteko soilik izango da.

3.– Hizkuntz eskakizuna aginduzko izaten hasten den egunetik aurrera, lanpostu bakoitzera iritsi eta hori betetzeko ezinbestekoa izango da hizkuntz eskakizuna betetzea. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntz Politikako Idazkaritza Nagusiak proposatuta, salbuespenez eta direneantxe soma daitezkeen inguruabarretan, lanpostu bateko titularra lanpostu horretarako ezarritako hizkuntz eskakizunetik jare uzteko baldintzak araudiz ezarriko ditu.

4.– Eusko Jaurlaritzak Hizkuntz Politikako Idazkaritza Nagusiak proposatuta zehaztuko ditu hizkuntz eskakizunak, baita, aldizka, lanpostu bakoitzari ezarri beharreko erizpideak ere.

5.– Euskal Administrazio Publikoetan dauden lanpostuetako bakoitzari dagokion hizkuntz eskakizuna, baita hori aginduzko egiteko eguna ere, Hizkuntz Politikako Idazkaritza Nagusiak txostena egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak horretarako zehaztuko dituen erizpideen arauera, bakoitzeko jaurtze-erakundeak jarriko ditu.

6.– Bai hizkuntz-eskakizuna eta bai, hala behar izanez gero, hori indarrean jartzeko eguna ere, lanpostu-zerrendetan nahitaez azaldu beharko luketen berarizkotasunen artean sartu beharko dira.

7.– Hizkuntz eskakizunak nahitaez ezartzeko erizpideek Administrazio bakoitzean dauden lanpostuetarako berdintasunez eta heintasunez jokatzeko izango dute xede, horko egitekoari dagokion titulazioko Kidego, Eskala, maila edo Taldea dela eta, inolako bereizkuntzarik egin gabe.

8.– Euskal Administrazio Publikoak, horretarako beharrezko diren neurriak hartuz, beren zerbitzuko langileek behar bezalako hizkuntz gaikuntza izan dezaten saiaturiko dira.

#### **98. Atala.–**

1.– Euskal Administrazio Publikoen zerbitzuan sartzeko baztertze-indarreko saiotarako deietako edukia berritan sartutako langilez bete beharreko lanpostuei izendatutako hizkuntz eskakizunei egokituko zaie.

2.– Gorago esandakoetarako, lantoki baterako deia izatearen arrazoia hizkuntz eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostua bada, sartzeko bete beharrekoa izango da hori. Hizkuntz eskakizuna, deiaren oinarri-arauetan zehazten denez, hautaketa-saioretan hori egiaztatuz, edo funtzionari izatera iritsi aurretiko gaitze-ikastaroak eta praktika-aldiak dirauen bitartean bete dadin eskatu ahal izango da.

3.– Aurreko idazatian oharmandakoaren arabera, hizkuntz eskakizuna gaitze-ikastaroen bidez burutu beharko litzatekeen kasuetan, hori bete beharra bai deia egiteko egunean hori nahitaezkoa izango litzatekeeneko lanpostuak betetzeko, baita aginduzko egiteko eguna gaitze-ikastaroa eta praktika-aldia bukatu baino lehenagokoa denetakoak betetzeko ere izan daiteke. Hauetan sartzeko, aurrez, baztertze-indarreko saioren bidez, lanpostua betetzeko eskatutako hizkuntz eskakizuna baino bi maila beheragokoa egiaztatua izan beharko da. Lanpostuari dagokion eskakizuna euskera gutxiago jakitea adierazizko bietako bat denetan, baztertze-indarreko saioretan euskerari merezimendu-balioa emango zaio.

4.– Baztertze-indarreko saioretan inolako hizkuntz eskakizunik bete beharrik izango ez balitz, euskeraz jakitea merezimendutzat hartuko da. Horren balioa lanpostuaren Kidego edo Eskalak bete beharreko lanpostuei izendatutakoen artean nagusi den hizkuntz eskakizunaren eretzean neurtuko da, eta horren heinekoa ez da inoiz ere aukeraketa-aldi guztian lortu daitekeen gehienerako puntuazioaren ehuneko bostetik beherakoa, ez eta ehuneko hogeitik gorakoa ere izango.

Lanpostua betetzeko euskeraz jakitea merezimendutzat hartu beharko litzatekeen kasutan, aurreko leerroaldian jarritako irizpideari jarraituko zaio.

#### **99. Atala.–**

1.– Hizkuntz eskakizun ezberdinak bete direla egiaztatzeko, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak erabakiko ditu kasu bakoitzean beharrezko izango den euskeraren jakintza haztatzeko saioren edukia eta nolakoa, eta horiek euskal Administrazio Publiko guztientzat berdinak eta guztiek ezarri beharrekoak izango dira.

2.– Euskal Administrazio Publikoetan sartzeko aukeraketa-aldietako epaimahaietan Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagokion ordezkotzaren kaltetan gabe, Erakunde horretako ordezkari bat izango da epaimahaikide deian eskatutako hezkuntz eskakizuna egiaztatzeko saioretan. Lanpostuak betetzeko lehiaketak epaitzeko batzordeen osaketan ere, ordezkotza hori, ondorio beretako, beharrezko izango da.

**12. GAIA. ADMINISTRAZIO PROZEDURA (I). 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARENARENA. JARDUERA ARAU OROKORRAK (13-28 ARTIKULUAK). EPE MUGAK ETA EPEAK (29-33 ARTIKULUAK). EGINTZEN ERAGINKORTASUNA (37-42 ARTIKULUAK).**

**II. TITULUA.**

**ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN JARDUERA**

**I. KAPITULUA**

**JARDUERA-ARAU OROKORRAK**

**13. artikulua.** *Pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak*

3. artikulua araberako administrazio publikoaren aurrean jarduteko gaitasuna dutenek eskubide hauek dituzte haiekiko harremanetan:

- a) Administrazio publikoekin komunikatzea administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoen bitartez.
- b) Baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.
- c) Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea, lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
- d) Informazio publikoaren, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, gardentasunari, informazio publikoaren eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
- e) Errespetuz eta begirunez tratatuak izatea agintarien eta enplegatu publikoaren aldetik, erraztasunak emanez beren eskubideez baliatzeko eta eginbeharrak betetzeko.
- f) Administrazio publikoaren eta agintarien erantzukizuna eskatzea, legearen dagokionean.
- g) Lege honetan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako aurreikusitako bitartekoak lortzea eta erabiltzea.
- h) Izaera pertsonaleko datuak babestea, eta bereziki administrazio publikoaren fitxategi, sistema eta aplikazioetan jasota dauden datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna izatea.
- i) Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako eskubide guztiak.

Eskubide horiek ez dituzte eragozten administrazio-prozeduran interesdun direnei 53. artikuluan aitortutakoak.

**14. artikulua.** *Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra.*

1. Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez, non eta ez

dauden behartuak administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera. Administrazio publikoekin komunikatzeko aukeratu duen bidea noiznahi aldatu ahal izango du norberak.

**2.** Betiere, administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behartuak egongo dira honako hauek, gutxienez:

a) Pertsona juridikoak.

b) Nortasun juridikorik gabeko erakundeak.

c) Diharduten lanbidean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera hori dela-eta administrazio publikoekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako. Kolektibo horretakotzat joko dira beti notarioak, jabetzaren erregistratzaileak eta merkataritza-erregistratzaileak.

d) Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartua dagoen interesdun baten ordezkari direnak.

e) Administrazio publikoetako enplegatuek enplegatu publiko izateagatik administrazioekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak erregelamenduz zehazten duen eran.

**3.** Erregelamenduz, administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikoa izatera irispidea eta modua badutela.

#### **15. artikulua.** *Prozeduretako hizkuntza*

**1.** Gaztelania izango da Estatuaren Administrazio Orokorrek izapidetzen dituen prozeduretako hizkuntza. Dena den, Estatuaren Administrazio Orokorrek autonomia-erkidego batean dituen organoetara jotzean, autonomia-erkidego horretan ofiziala den beste hizkuntza ere erabil dezakete interesdunek.

Kasu horretan, interesdunak aukeratutako hizkuntzan izapidetuko da prozedura. Prozeduran interesdun bat baino gehiago bada eta hizkuntza bera aukeratzeko ez badute, gaztelaniaz izapidetuko da prozedura, baina berek aukeratutako hizkuntzan emango zaizkie interesdunei agiri edo lekukotasunak.

**2.** Autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako administrazioek izapidetutako prozeduretan, dagokion legeria autonomikoan ezarritakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera.

**3.** Administrazio publiko instruktoreak gaztelaniara itzuli beharko ditu autonomia-erkidegoko lurraldetik harago eragina izan behar duten agiri edo espedienteak edo haien atalak eta espresuki hala eskatzen duten interesdunei zuzendutako agiriak. Gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizialkide bera duen autonomia-erkidego batean izan behar badute eragina, ez da beharrezko izango itzultzea.

## **16. artikulua. Erregistroak**

**1.** Administrazio bakoitzak erregistro elektronikoro orokor bat izango du, hartan idazpena egiteko edozein agiri aurkezten edo jasotzen dela ere administrazio horri lotutako edo haren mendeko edozein administrazio-organo, organismo publiko edo entitatetan. Erregistro horretan jaso ahal izango da, halaber, beste organo edo herritar batzuei zuzendutako agiri ofizialen irteera ere.

Administrazio bakoitzari lotutako edo haren mendeko erakunde publikoek beren erregistro elektronikoa eduki ahal izango dute, menderaturik dauden administrazioaren erregistro elektronikoro orokorrarekin lotua eta osotara elkarreragingarria.

Administrazio bakoitzaren erregistro elektronikoro orokorrak atari baten moduan funtzionatuko du, erakunde bakoitzari erregistro elektronikoroetarako irispidea erraztuz. Legeariak izaera pertsonaleko datuen babesari dagokionez aurreikusten dituen bermeak eta segurtasun-neurriak bete beharra daukate bai administrazio bakoitzaren erregistro elektronikoro orokorrak eta bai erakunde bakoitzaren erregistro elektronikoroak.

Erregistro elektronikoroak sortzeko xedapenak dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eta haien testu osoak kontsultatzeko eskuragarri egon behar du erregistrorako sarbidea dagoen egoitza elektronikoroan. Betiere, erregistro elektronikoroak sortzeko xedapenak zehaztu behar dute zer organo edo unitatek duen haien kudeaketaren ardura, zein den data eta ordu ofiziala, eta zer egun diren baliogabeak.

Erregistro bakoitzerako sarbidea dagoen egoitza elektronikoroan agertuko da hartan has daitezkeen izapideen zerrenda eguneratua.

**2.** Agirien sarrera- edo irteera-egunaren hurrenkera errespetatuz egingo dira idazpenak, eta sarrera edo irteeraren data adieraziko da haietan. Agiriak erregistratzeko izapidea amaitutakoan, hartzaileei eta dagozkien administrazio-unitateei bidaliko zaizkie, geroratu gabe, jaso diren erregistrotik bertatik.

**3.** Administrazio edo organismo bakoitzaren erregistro elektronikoroak bermatu behar du egiten den idazpen bakoitzean jasotzen direla honako hauek: zenbakia, izaera adierazten duen izenburua, aurkezpen-data eta -ordua, interesdunaren identifikazioa, administrazio-organo igorlea, hala badagokio, eta nori edo zer administrazio-organori igortzen zaion eta, behar izanez gero, erregistratzen den agiriaren edukiaren aipamena. Horretarako, jaso-agiri gisa emango da, berehala, agiriaren kopia kautotu bat, aurkezpen-data eta -orduarekin eta erregistroaren sarrera-zenbakiarekin, eta orobat harekin batera doazen —hala bada— bestelako agirien jaso-agiri bat ere, haien osotasuna eta gaitzespenik eza bermatuko duena.

4. Interesdunek toki hauetan aurkeztu ahal izango dituzte administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten agiriak:

- a) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoetan.
- b) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- c) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo kontsuletxe-bulegoetan.
- d) Erregistro-gaietako laguntzarako bulegoetan.
- e) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

Administrazio guzti-guztien erregistro elektronikoek osotara elkarreragingarriak izan behar dute, hartara berma dadin haien bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa, eta orobat erregistro-idazpenen eta edozein erregistrotan aurkezten diren agirien transmisio telematikoa.

5. Administrazio publikoen aurrean eskura aurkezten diren agiriak digitalizatu egin beharko ditu, 27. artikuluan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitakoaren arabera, erregistro-gaietako laguntzarako bulegoak; zein bulegotan aurkeztu diren administrazio-espedito elektronikoari gehitzeko, bulego horrek digitalizatuko ditu, hain zuzen. Jatorrizko agiriak interesdunari itzuliko zaizkio, hargatik eragotzi gabe zenbait kasutan arauak agintzen duenaren arabera Administrazioak zaindu behar izatea aurkezten diren agiriak edo nahitaezkoa izatea objektu edo agiri batzuk euskarri espezifikoren batean aurkeztea eta ondorioz ezin digitalizatu izatea.

Erregelamenduz, administrazioek zenbait agiri bitarteko elektronikoz aurkeztu beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikoetarako irispidea eta modua badutela.

6. Dagokion bulego publikora zuzendutako transferentzia baten bidez ordaindu ahal izango da agiriak administrazio publikoen aurrean aurkezteko unean ordaindu beharreko edozein diru-kopuru, hargatik eragotzi gabe beste bideren batetik ordaintzeko aukera.

7. Agiriak elektronikoki aurkezteko laguntza emango den bulegoen zerrenda bat publiko egin behar dute administrazio publikoek, eta eguneraturik mantendu.

8. Ez dira erregistroan aurkeztutzat joko beren araubide bereziaren arabera beste aurkezpen-moduren bat behar duten agiriak eta informazioa.

**17. artikulua.** *Agiriak artxibatzea*

1. Amaitutako prozedurei dagokien artxibo bakar elektronikoa bat izan beharko du administrazio bakoitzak, aplikatzekoa den araudian ezarritako moduan.

2. Agiri elektronikoak haien benetakotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatuko dituen formatu batean gorde behar dira, eta orobat bermatu behar da haien kontsultatzeko modua izango dela, eman zenetik igaro den denbora gorabehera. Segurtatu behar da, beti, aukera izan dadila datuak beste formatu eta euskarri batzuetara aldatzeko, bestelako aplikazioen bitartez ere haietarako irispidea izateko. Agiriak deuseztatzeko, baimena beharko da, aplikatzekoa den araudian xedatutakoaren arabera.

3. Agiriak biltegitzeko bitarteko edo euskarriek segurtasun-neurriak izan beharko dituzte, Segurtasun Eskema Nazionalean aurreikusitakoaren arabera, biltegitratutako agirien osotasuna, benetakotasuna, konfidentzialtasuna, kalitatea, babesa eta kontserbazioa bermatzeko. Bereziki, erabiltzaileen identifikazioa eta sarbideen kontrola segurtatu beharko dute, eta, orobat, datuen babeserako legerian aurreikusitako bermeak betetzen direla.

**18. artikulua.** *Pertsonen laguntza*

1. Pertsonak lagundu egin behar diote Administrazioari, kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeak aurreikusitako moduan, eta, aurreikuspen espresurik ezean, Administrazioaren eskura jarriko dituzte beren eskumenak baliatzeko behar dituzten txostenak, ikuskapenak eta gainerako ikerketa-egintzak, non eta Administrazioak eskatutako informazioa agerian jartzeak ez dion erasotzen ohoreari edo norberaren edo familiaren intimitateari edo ez dakarren hirugarren batzuen datu konfidentzialak zabaltzea, diagnostiko-, aholkularitza- edo defentsa-zerbitzu

profesionalak ematean izan delarik haien berri, hargatik eragotzi gabe legeriak kapital-zuriketaren eta jarduera terroristen finantziazioaren gaian zedatzen duena.

2. Prozeduran agertu ez diren beste interesdun batzuk identifikatzeko datuak dituzten interesdunak behartuta daude datu horiek diharduen administrazioari jakinaraztera.

3. Interesdunaren egoitzan edo titularraren baimena beharrezko den gainerako lekuetan sartu beharra badago ikuskapena egiteko, 100. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

**19. artikulua.** *Pertsonen agerraldia*

1. Pertsonak bulego publikoetan agertzea, bertara joanez edo bitarteko elektronikoz, lege-mailako arauen batean hala ezarrita dagoenean bakarrik izango da nahitaezkoa.

2. Agerraldia egin beharra dagoenean, hartarako zitazioan espresuki adieraziko dira lekua, data, ordua, eskura dauden bitartekoak eta agerraldiaren xedea, bai eta zitazioari ez erantzutearen ondorioak ere.

3. Agerraldia egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria emango diote administrazio publikoek interesdunari, hala eskatzen badu.

**20. artikulua.** *Izapideen erantzukizuna*

1. Gaiak ebazteko edo bideratzeko ardura duten administrazio-unitateetako arduradunak eta administrazio publikoetako langileak dira, zuzenean, izapideen erantzule, eta hartu beharreko neurriak hartuko dituzte izapideetan sor daitezkeen oztopoak kentzeko, interesdunek eragozpenik, zailtasunik edo atzerapenik izan ez dezaten beren eskubideez baliatzeari edo beren interes legitimoak errespetatzeari dagokionez. Hartu beharreko neurriak hartuko dituzte, beraz, prozedurak izapidetzearan okerrik ez izateko eta, izan bada, ezabatzeko.

2. Erantzukizun hori galdatzeko eska diezaiokete interesdunek eraginpeko pertsonala mendean daukan administrazio publikoari.

**21. artikulua.** *Ebazteko betebeharra*

1. Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua

Preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, eta orobat prozeduraren objektua gerora desagertzen denean, kasuan kasuan gertatutakoa adieraztea izango da ebazpena, jazotako egitateak eta aplikatzekoak diren arauak zehaztuta.

Lehenengo paragrafoan aipatutako betebeharretik salbuetsita daude prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen diren kasuak eta, orobat, erantzukizunpeko adierazpena edo Administrazioari jakinaraztea beste betebeharririk ez dakarten eskubideak baliatzeari dagozkion prozedurak.

2. Ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea, dagokion prozedura arautzen duen arauan zehaztutakoa izango da.

Epe hori ezin da sei hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.

3. Prozedurei dagozkien arauetan ezarrita ez badago, hiru hilabete izango da gehieneko epea. Epe hori eta aurreko zenbakian adierazitakoak honela zenbatuko dira:

- a) Ofizios hasitako prozeduretan, hasteko erabakiaren egunetik aurrera.
- b) Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, izapidetzeko eskumena duen administrazio edo erakundearen erregistro elektronikoan eskaera sartu den egunetik aurrera.



4. Administrazio publikoek argitaratu eta eguneratuta eduki behar dituzte webgunean, jendearen informaziorako, beren eskumeneko prozeduren zerrendak, haien gehieneko iraupenak eta administrazio-isiltasunaren ondorioak adierazirik.

Betiere, administrazio publikoek interesdunei jakinarazi beharra daukate zer gehieneko epe dagoen ezarrita prozedurak ebazteko eta haien amaiera ematen dieten egintzak jakinarazteko, eta, orobat, zer ondorio izan ditzakeen administrazio-isiltasunak. Aipamen hori sartuko da ofizioz hasteko erabakiaren jakinarazpen edo argitalpenean, edo horretarako zuzenduko den jakinarazpenean, zeina interesdunari igorriko baitzaio izapidetzeko eskudun den administrazio edo erakundearen erregistro elektronikoan prozedura hasteko eskaera jaso eta hurrengo hamar egunen barruan. Azken kasu horretan, jakinarazpenak adierazi behar du organo eskudunak eskaera zer datatan jaso duen ere.

5. Egindako eskaeren edo eraginpeko pertsonen kopuruak ebazpena emateko gehieneko epea ez betetzea ekar lezakeenean, ebazteko eskumena duen organoak, organo instruktoreak — arrazoiturik— hala proposatuta, edo ebazteko eskumena duen organoaren goragoko mailakoak, haren proposamenez, egoki eta epean bideratzeko behar diren baliabide pertsonal eta materialak jarri ahal izango ditu.

6. Gaiak bideratzeaz arduratu behar duten administrazio publikoen zerbitzuko langileek, eta orobat instrukzioa egin eta ebazpena emateko eskumena duten administrazio-organotako titularrek, zuzeneko erantzukizuna dute, bakoitzak bere eskumen-esparruan, epe barruan ebazpen espresua emateko legez ezarrita dagoen betebeharra konpli dadin.

Betebehar hori konplitu ezean, diziplina-erantzukizuna galdatuko zaie, aplikatzekoa den araudian ezarritako erantzukizunaz gainera.

## **22. artikulua.** *Ebazteko gehieneko epea geldieran uztea*

1. Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legez ezarri den gehieneko epea geldieran utz daiteke kasu hauetan:

a) Interesdunen bati akatsak zuzen ditzan edo beharrezko diren agiriak eta judizio-elementuak bidali ditzan eskatu behar zaionean, epea geldieran egongo da interesdunari eskakizuna jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arteko denboran edo betetzeko emandako epean, betiere lege honen 68. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

b) Aurrez Europar Batasuneko organoren batek nahitaez irizpena eman behar duenean, epea geldieran egongo da horretarako eskaria egiten denetik —interesdunei jakinarazi beharko zaie— irizpena administrazio instruktoreari jakinarazi arte —hori ere jakinarazi beharko zaie—.

c) Europar Batasunaren esparruan amaitu gabeko prozeduraren bat baldin bada, eman beharreko ebazpenaren edukia zuzenean baldintzatzen duena, badela jakiten denetik —

interesdunei berehala jakinarazi beharko zaie halako prozedura bat badela— ebazten den arte —hori ere jakinarazi beharko zaie—.

d) Administrazio bereko edo beste bateko organo bati nahitaez txostena eskatu behar zaionean, epea etenda egongo da eskaria egiten denetik txostena jaso arte —interesdunei jakinarazi behar zaie gauza bat eta bestea—. Geldiera hori ezin izan daiteke inoiz hiru hilabete baino gehiagokoa. Txostena ez bada adierazitako epean jasotzen, jarraitu egingo du prozedurak.

e) Interesdunek proposaturik proba teknikoak edo azterlan kontraesanezko edo erabakigarriak egin behar direnean, epea geldieran egongo da emaitzak espedientean sartzeko behar den denboran.

f) Itun edo hitzarmen baterako negoziazioak hasten direnean, betiere lege honen 86. artikuluan ezarritakoari jarraituz, epea geldieran egongo da negoziazioaren hasiera formala adierazten denetik negoziazioa ondoriorik gabe amaitu arte, hala gertatzen bada; hori jasota geratuko da administrazioak edo interesdunek egindako adierazpen baten bitartez.

g) Prozedura ebazteko ezinbestekoa bada jurisdikzio-organok alde zuzenetik irizpena ematea, epea geldieran egongo da irizpena eskatzen denetik —interesdunei jakinarazi beharko zaie— Administrazioak hura jasotzen duen arte —hori ere jakinarazi beharko zaie—.

**2.** Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko lege zuzenaren epea geldieran utziko da kasu hauetan:

a) Administrazio publiko batek beste bati errekerimendua egiten badiu lege zuzenaren kontrako deritzon egintza bat deusezta edo berrikus dezan, egintza hori izanik lehenak bere eskumenen barruan eman behar duen egintza baterako oinarria, lege honen 39. artikuluan 5. zenbakian aipatzen den kasuan, epea geldieran utziko da errekerimendua egiten denetik erantzuten zaion arte edo, hala gertatzen bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan jarritako errekurtsua ebazten den arte. Interesdunei jakinarazi beharko zaie, bai errekerimendua egin dela, bai bete dela edo, hala gertatzen bada, dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsua ebatzi dela.

b) Ebazteko eskudun den organoak erabakitzen badu 87. artikuluan aurreikusitako osagarri den jardueraren bat egitea, epea eten egingo da interesdunei jarduerak hasteko erabaki arrazoitua jakinarazten zaienetik jarduera hori amaitzen den arte.

c) Interesdunek errekusazioa sustatzen badute prozedura bat izapidetzen ari den bitarteko edozein unetan, epea geldieran utziko da errekusazioa planteatzen denetik hasi eta errekusatuaren goragoko mailakoak hartaz ebazten duen arte.

**23. artikulua.** Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea zabaltzea

**1.** Salbuespenezko moduan, 21. artikuluan 5. zenbakian aipatzen diren baliabide pertsonal eta materialak agortu direnean, ebazteko eskudun den organoak, hala badagokio organo instruktoarak edo ebazteko eskudun den organoaren goragoko mailakoak proposaturik, erabaki ahal izango du, arrazoiturik, ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea zabaldu egin dela; inoiz ezin izango da, betiere, prozedura izapidetzeko ezarritako epea baino luzeagoa izan.

2. Epea luzatzeaz ebazteko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie, eta haren aurka ezin izango da inolako errekurtsorik aurkeztu.

**24. artikulua.** *Administrazio-isiltasuna interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan*

1. Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, hargatik eragotzi gabe Administrazioak artikuluko honen 3. zenbakian aurreikusitako moduan eman behar duen ebazpena, gehieneko epea ebazpen espresurik gabe amaitzeak zilegitasuna ematen die interesdunei administrazio-isiltasunez baietsizat jotzeko, non eta ez duen kontrakoa agintzen lege-mailako arauen batek edo Espainian aplikatzekoa den Europar Batasuneko zuzenbideko edo nazioarteko zuzenbideko arauen batek. Prozeduraren gaia jarduera baterako irispidea izatea edo jarduera horretan aritzea denean, isiltasunak ezespren-balioa duela xedatzen duen legeak interes orokorreko arrazoi erabatekoetan oinarritu beharko du.

Isiltasunak ezespren-balioa izango du Konstituzioaren 29. artikuluko aipatzen duen eske- eskubideaz baliatzeari buruzko prozeduretan, baiestearen ondorioz eskatzaileari edo hirugarren batzuei jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren gaineko ahalmenak eskuratuko litzazkioketen prozeduretan, ingurumenari kalte egin liezaioketen jarduerak egitea dakartenetan eta administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan.

Isiltasunak ezespren-balioa izango du, orobat, egintza eta xedapenak aurkaratzeko prozeduretan eta interesdunen eskariz hasitako ofiziozko berrikuspenari buruzkoetan. Hala ere, gora jotzeko errekurtsua, epea igarotzeagatik eskaera bat administrazio-isiltasunez ezetsi izanaren aurka jarria bada, baietsizat joko da ebazpen-epea heldutakoan eskumena duen administrazio-organoak ebazpen espresua eman eta jakinarazi ezean, non eta ez den zenbaki honen aurreko paragrafoan zerrendatutako gaiei buruzkoa.

2. Administrazio-isiltasunez baiestea, ondorio guztietarako, prozedura amaitzen duen administrazio-egintzat joko da. Administrazio-isiltasunez ezestearen ondorio bakarra zera izango da: interesdunek aukera izatea bidezko den administrazio-errekurtsua edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko

3. Ebazpen espresua emateko betebeharra, 21. artikuluko lehen zenbakian ezarria, araubide honi atxikiko zaio:

- a) Administrazio-isiltasunaren ondoriozko baiespenaren kasuetan, egintzaren ondorengo ebazpen espresua hura berresteko baino ezin da izan.
- b) Administrazio-isiltasunaren bidezko ezesprenaren kasuetan, epea igaro ondorengo ebazpen espresua emateko orduan, Administrazioarentzat ez da loteslea isiltasunaren esanahia.

4. Administrazio-isiltasunaren bidez gertatutako administrazio-egintzak baliarazi ahalko dira hala administrazioaren aurrean nola edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribaturen

aurrean. Egintza horiek ondorioak dituzte ebazpen espresua emateko eta jakinarazteko gehieneko epea ebazpenik eman gabe amaitzen denetik, eta egintza horien existentzia egiazta daiteke zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bitartez, isiltasuna gertatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria barne. Ziurtagiri hori ofizioz emango du ebazteko eskudun den organoak, hamabost eguneko epean, prozedura ebazteko gehieneko epea amaitzen denetik aurrera zenbaturik. Nolanahi ere, interesdunak noiznahi eskatu ahal izango du ziurtagiria, eta, aipatutako epea zenbatzeko, ebazteko eskudun den administrazio edo erakundearen erregistro elektronikoan eskaera sartu den egunaren hurrengo hartuko da lehen eguntzat.

**25. artikulua.** *Ebazpen espresurik eza ofizioz hasitako prozeduretan*

1. Ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean ebazpen espresua eman eta jakinarazi ez izateak ez du administrazioa salbuesten ebazteko betebeharrak legezkotik, eta hauek izango dira ondorioak:

- a) Eskubideak aitortzea edo aldeko beste egoera juridikoren batzuk sortzea erator daitekeen prozeduretan, agertu diren interesdunek administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ditzakete beren uziak.
- b) Zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak prozeduran, interesdunari ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak, iraungi egingo da prozedura. Kasu horietan, prozedura iraungi dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, eta 95. artikuluan adierazitako ondorioak izango ditu.

2. Prozedura interesdunari egotz lekiokoen arrazoiren bategatik geldiarazi den kasuetan, hasierara itzuliko da ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa.

**26. artikulua.** *Administrazio publikoek agiriak ematea*

1. Administrazio-agiri publikotzat joko dira administrazio publikoen organoek baliozko moduan emandako agiriak. Administrazio publikoek idatziz emango dituzte administrazio-agiriak, bitarteko elektronikoaren bidez, non eta haien izaerak ez duen eskatzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat aukeratzea.

2. Baliozkotzat jotzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte administrazio-agiri elektronikoek:

- a) Edozein eratako euskarri elektroniko batean artxibaturik izatea informazioa, identifikatzeko eta bereiziki tratatzeko modukoa den formatu baten arabera.
- b) Indibidualizatzeko aukera ematen duten identifikazio-datuak izatea, hargatik eragotzi gabe espediente elektroniko batean sartzeko aukera.
- c) Eman diren unearen denbora-erreferentzia bat izatea.
- d) Eskatzen diren gutxieneko metadatuak izatea.
- e) Aplikatzekoa den araudiaren arabera dagozkion sinadura elektronikoak izatea.

Baliozkotzat joko dira betekizun horiek betetzen dituzten eta hirugarren bati bitarteko elektronikoz helarazten zaizkion agiri elektronikoak.

3. Ez dute sinadura elektronikoaren beharrik administrazio publikoek eman eta informazio hutserako argitaratzen diren agiri elektronikoek, eta orobat administrazio-espediente baten parte direnek. Betiere, agiri horien jatorria identifikatu beharra dago.

**27. artikulua.** Administrazio publikoek egindako kopien baliozkotasuna eta eraginkortasuna

1. Administrazio publiko bakoitzak erabakiko du zer organok dituzten eskumenak administrazio-agiri publiko edo pribatuen kopia kautoak egiteko.

Agiri pribatuen kopia kautoek ondorio administratibo hutsak dituzte. Administrazio publiko batek egindako kopia kautoak baliozkoak izango dira gainerako administrazioetan.

Estatuaren Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek funtzionario gaitu baten bitartez edo administrazio-jarduera automatizatuaren bitartez egin ahal izango dituzte kopia kautoak.

Eguneraturik eduki beharko da erregistro bat, edo beste sistema baliokide bat, kopia kautoak egiteko gaituta dauden funtzionarioak agertuko dituen. Erregistro edo sistema horrek eta gainerako administrazio publikoetakoek erabat elkarreragingarriak izan behar dute, eta elkarrekin konektaturik egon, gaikuntza horren baliozkotasuna egiaztatzeko. Erregistro edo sistema baliokidean agertuko dira, gutxienez, erregistro-gaietako laguntzarako bulegoetan zerbitzu egiten duten funtzionarioak.

2. Administrazio-agiri publiko edo pribatu baten kopia kautotzat joko dira, edozein euskarritan eginda daudela ere, administrazio publikoetako organo eskudunek egindakoak, bermaturik geratzen bada kopia egin duen organoaren identitatea eta agiriaren edukia.

Kopia kautoek jatorrizko agirien baliozkotasun eta eraginkortasun bera izango dute.

3. Kopia elektronikoen edo paperezkoen identitatea eta edukia bermatzeko, eta, beraz, kopia kautoak direla bermatzeko, administrazio publikoek bete beharra daukate Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalan, Segurtasun Eskema Nazionalan eta haiek garatzeko arau teknikoetan aurreikusitakoa, eta orobat erregela hauek:

a) Jatorrizko agiri elektroniko baten edo kopia elektroniko kauto baten kopia elektronikoek, formatu-aldaketa izan edo ez, berekin eraman beharko dituzte kopia direla egiaztatzen duten eta agiria kontsultatzean bistaratzen diren metadatuak.

b) Paper-euskarria edo digitaliza daitekeen beste euskarri ez-elektroniko bat duten agirien kopia elektronikoen kasuan, agiriak digitalizatu egin beharko dira, eta kopiek berekin eraman beharko dituzte kopia direla egiaztatzen duten eta agiria kontsultatzean bistaratzen diren metadatuak.

Digitalizazioa prozesu teknologiko bat da zeinaren bitartez paper-euskarria edo beste euskarri ez-elektroniko bat duen agiri bat agiriaren irudi kodetu, leial eta osoa duen fitxategi elektroniko bihurtzen baita.

c) Agiri elektronikoen paper-euskarriko kopiek adierazi beharra daukate kopia direla, eta kode elektronikoki sortu bat edo beste egiaztapen-sistema bat izan behar dute, aukera emango duena kopiaren egiazkotasuna kontrastatzeko, kopia egin duen organo edo erakundearen artxibo elektronikoetan sartuz.

d) Paperean diren jatorrizko agirien paper-euskarriko kopiak Administrazioaren esku dagoen agiri elektronikoaren paperezko kopia kauto bat eginez emango dira, edo, bestela, jatorrizko agiriaren kopia kautoa daraman agerbide elektroniko baten bitartez.

Ondorio horietarako, administrazioek publiko egingo dituzte, dagokion egoitza elektronikoaren bitartez, egiaztapen-kode seguruak edo erabilitako bestelako egiaztapen-sistema.

**4.** Interesdunek noiznahi eskatu ahal izango dute administrazio publikoek baliozko moduan emandako administrazio-agiri publikoen kopia kautoak ateratzeko. Jatorrizko agiria eman zuen organoari zuzenduko zaio eskaera, eta, alde batera utzita abenduaren 9ko 19/2013 Legea aplikatzeak dakartzan salbuespenak, hamabost eguneko epean eman beharko dira, eskaera administrazio edo erakunde eskudunaren erregistro elektronikoan jasotzen denetik aurrera zenbaturik .

Era berean, administrazio publikoak behartuak daude kopia kauto elektronikoak ateratzera interesdunek aurkeztzen duten eta administrazio-espeditante batean sartu behar den paperezko edozein agiritatik.

**5.** Administrazio publikoek kopia kauto elektronikoak ateratzen dituztenean, espresuki hala adierazirik egon behar du kopiaren agirian.

**6.** Notario-agiri publiko, erregistro-agiri publiko eta agiri judizial publikoen eta aldizkari ofizialen kopia kautoak ateratzeko modua bakoitzaren berariazko legeriaren arabera izango da.

## **28. artikulua.** *Administrazio-prozeduran interesdun direnek ekarritako agiriak*

**1.** Interesdunek administrazio-prozedurara ekarri beharko dituzte administrazio publikoek aplikatzekoa den araudiaren arabera eskatzen dituzten datu eta agiriak. Komenigarritzat jotzen duten beste edozein agiri ere ekar dezakete interesdunek.

2. Interesdunak ez daude beharturik administrazioen batek egina den agirien kopiak ekartzera, nahiz agiri horiek prozeduran aurkeztea nahitaezkoa izan nahiz aukerakoa izan, betiere interesdunak onespina adierazia badio agiri horiek kontsultatzeari edo ateratzeari. Kontsultatzea edo ateratzea interesdunek baimendua delako presuntzioa egingo da, ez badute prozeduran kontrakotasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela.

Interesdunaren kontrakotasunik ezean, administrazio publikoek elektronikoki atera beharko dituzte agiriak, beren sare korporatiboen bitartez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo hartarako prestatutako beste sistema elektronikoren bati kontsulta eginez.

Nahitaezko txosten bat lehendik egina duenean prozedura izapidetzen ari den administrazioaz beste batek, hamar eguneko epean bidali beharko du hark, eskatzen denetik aurrera zenbaturik. Epe hori betetakoan, interesdunari jakinaraziko zaio ekar dezakeela txosten hori edo geldi daitekeela organo eskudunak bidaltzeko zain.

3. Administrazioek ez diete interesdunei eskatuko jatorrizko agiriak aurkezteko, non eta, salbuespenezko moduan, aplikatzekoa den araudiak ez duen hala agintzen.

Era berean, administrazio publikoek ez diete interesdunei galdatuko aplikatzekoa den araudiak eskatzen ez duen edo interesdunak lehendik administrazioen bati ekarria dion datu edo agiririk. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen agiri horiek, eta administrazio publikoek elektronikoki atera beharko dituzte beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformetan edo hartarako prestatutako gainerako sistema elektronikoen bidez kontsulta eginez. Presuntzio egingo da kontsulta hori interesdunek baimendua dela, non eta prozeduran ez den haren kontrakotasun espresua jasotzen edo aplikatzekoa den lege bereziak ez duen eskatzen onspen espresua ematea; bi kasuetan ere, aurrez informazioa eman beharko zaie izaera pertsonaleko datuen babesaren aldetik dituzten eskubideei buruz. Salbuespenezko moduan, administrazio publikoek ezin badituzte aipatutako agiriak atera, berriz ere eskatu ahal izango diote interesdunari ekar ditzala.

4. Baldin eta, salbuespenezko moduan eta lege honetan aurreikusitakoaren arabera, administrazioak eskatzen badu jatorrizko agiri bat aurkezteko eta hura paperean badago, interesdunak kopia kauto bat lortu beharko du, 27. artikuluan ezarritako betekizunen arabera, elektronikoki aurkeztu baino lehen. Ateratzen den kopia elektronikoa espresuki jasoko du xehetasun hori.

5. Salbuespenezko moduan, agiriak prozeduran duen garrantziak hala eskatzen badu edo kopiaren kalitateak zalantza eragiten badu, administrazioek eskatu ahal izango dute, arrazoiturik, interesdunak ekarritako kopiak alderatzeko; horretarako, jatorrizko agiria edo informazioa erakusteko eskatu beharko dute.

6. Interesdunek administrazio-prozedurara ekartzen dituzten kopiek administrazio publikoen jardueraren esparruan bakarrik izango dute eraginkortasuna.

7. Interesdunak izango dira aurkezten dituzten agirien egiazkotasunaren erantzule.

## II. KAPITULUA

### Epe-mugak eta epeak

**29. artikulua.** *Epe-mugak eta epeak bete beharra.*

Lege honetan edo beste batzuetan ezarritakoepe-mugak eta epeak bete beharrekoak dira gaiak izapidetzeko eskumena duten administrazio publikoetako agintari eta langileentzat eta gai horietako interesdunentzat.

**30. artikulua.** *Epeen zenbaketa*

1. Legeetan edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazi ezean, epeak ordutan jartzen badira, ordu baliodunak direla joko da. Baliiodunak dira egun baliodun bateko ordu guztiak.

Ordutan adierazitako epeak orduz ordu eta minutuz minutu zenbatuko dira dena delako egintza jakinarazten edo argitaratzen den ordu eta minututik aurrera, eta ezin izango dira izan hogeita lau ordu baino gehiagokoak, hala izanez gero egunetan adieraziko baitira.

2. Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko igandeak eta jaiegun izendatutakoak.

Epeak egun naturaletan adierazi badira, hala eskatzen duelako lege batek edo Europar Batasuneko zuzenbideak, datu hori jaso egin behar da jakinarazpenetan.

3. Egunetan adierazitako epeak zenbatzeko lehen eguna egintza jakinarazten edo argitaratzen denaren biharamuna izango da, edo administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten denaren biharamuna.



4. Epea hilabetetan edo urtetan jartzen bada, berriz, egintza jakinarazi edo argitaratu den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da, edo administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten den egunaren biharamunetik.

Epearen amaierako hilabete edo urtean jakinarazpena, argitalpena edo administrazio-isiltasuna gertatu den egun berean amaituko da epea. Muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunean bukatzen dela joko da.

5. Epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

6. Egundun bat balioduna bada interesduna bizi den udalerrian edo autonomia-erkidegoan, eta baliogabea administrazio-organismoaren egoitzan, edo alderantziz, baliogabetzat hartuko da beti.

7. Estatuaren Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoetako administrazioek, lan-egutegi ofizialari lotuz, epeak zenbartzeko baliogabe diren egunak ezarriko dituzte, bakoitzak bere eremuan. Autonomia-erkidegoek onartutako egutegian, adierazita egongo dira egutegi hori aplikatuko den lurralde-eremuko toki-erakundearen egun baliogabeak.

Egutegia urtea hasi baino lehen argitaratu behar da dagokion aldizkari ofizialean, bai eta herritarrek horren berri izango dutela bermatuko duten bestelako hedabideetan ere.

8. Epe-zenbaketarako egun bat baliodun edo baliogabe izateak ez du berez baldintzatzen ez administrazio publikoetako lantokietako jarduera, ez lan-orduen antolaketa, ez haietako lanaldi-eta ordutegi-araubidea ere.

### **31. artikulua.** *Epeen zenbaketa erregistroetan.*

1. Administrazio publiko bakoitzak argitaratuko du zer egutegi eta ordutegitan egon behar duten irekita agiriaren aurkezpen elektronikorako laguntza emango duten bulegoak, eta bermatuko du interesdunek bitarteko elektronikoen erabileran laguntza jasotzeko duten eskubidea.

2. Administrazio edo erakunde bakoitzaren erregistro elektronikoen, epeen zenbaketarako, sarbideko egoitza elektronikoen data eta ordu ofiziala izango du; behar diren segurtasun-neurriak izango ditu haren osotasuna bermatzeko, eta modu irisgarrian eta ikusteko moduan agertu beharko du.

Erregistro elektronikoen erregela hauen arabera funtzionatuko du:

- a) Aukera emango du agiriak aurkezteko arteko egun guztietan, eguneko hogeita lau orduetan.
- b) Egundun baliodunetan jarritako epeen zenbaketarako, eta interesdunek epeak betetzeari dagokionez, egun baliogabearen aurkeztutakoa hurrengo egun balioduneko lehen orduan

aurkeztutzat joko da, non eta arauen batek ez duen espresuki onartzen egun baliogabeen jasotzea.

Egun baliogabeen aurkeztu ziren ordu-hurrenkera berean aurkeztutzat joko dira agiriak. Egun baliogabeen aurkeztutako agiriak, hurrenkera berean, hurrengo egun baliodunean aurkeztutakoak baino lehenagokotzat joko dira.

c) Administrazio publikoek bete beharreko epeak zenbatzen hasteko, administrazio edo erakunde bakoitzaren erregistro elektronikoan aurkeztutako data eta ordua hartuko dira kontuan. Betiere, agiria aurkeztu duenari jakinarazi egin behar zaio zer data eta ordutan hasten den epea zenbatzen.

3. Administrazio publiko edo erakunde bakoitzaren egoitza elektronikoak erabakiko du, kontuan harturik haren titularrak eskumenak baliatzen dituen lurralde-eremua eta 30.7 artikuluan aurreikusitako egutegia, zer egun joko diren baliogabetzat artikulua honetan aurreikusitako ondorioetarako. Hori izango da erregistro elektronikoetan epeak zenbatzean aplikatuko den egun baliogabeen egutegi bakarria, eta ez da erregistroetan aplikatzekoa izango 30.6 artikuluan xedatutakoa.

### **32. artikulua. Epea luzatzea**

1. Administrazioak, ofizios edo interesdunen eskariz, luza dezake ezarritako epea, arauen batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie.

2. Baimenduta dagoen denbora guztirako luzatu behar dira epeak beti diplomazia-ordezkaritzek eta kontsuletxe-bulegoek izapidetutako prozeduretan, eta halaber barruan izapidetu arren atzerrian izapideren bat bete behar den edo Espainiatik kanpo bizi diren interesdunek esku hartzen duten prozeduretan.

3. Epea amaitu baino lehen egin behar du interesdunak epea luzatzeko eskaera, eta epearen barruan hartu behar da hari buruzko erabakia ere. Inoiz ez da luzatuko amaituta dagoen epe bat. Epeak luzatzeari edo hori ukatzeari buruzko erabakien kontra ezin daiteke errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

4. Gorabehera teknikoren batek eragotzi badu dagokion sistema edo aplikazioak ohi bezala funtzionatzea, arazoa konpontzen den bitartean, amaitu ez diren epeak luzatzea erabaki ahal izango du Administrazioak. Egoitza elektronikoan argitara eman beharko du, bai gertatutako gorabehera teknikoa, bai bete gabeko epea zehazki zenbat luzatzen den.

**33. artikulua.** *Urgentziaz izapidetzea*

1. Interes publikoaren arrazoiak direla eta, prozedura urgentziaz izapidetzea erabaki daiteke, ofizioz edo interesdunaren eskariz. Horrelakoetan, erdira murriztuko dira prozedura arruntaren epeak, salbu eta eskaerak eta errekursoak aurkeztekoak.

2. Ezin izango da errekurtsorik aurkeztu prozedura urgentziaz izapidetzekoa dela deklaratzeko duen erabakiaren kontra, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzea.

**II. KAPITULUA****Egintzen eraginkortasuna****37. artikulua.** *Bakarrarentzat indargabetu ezina*

1. Administrazio-ebazpen partikularrek ezin dute urratu xedapen orokor batean ezarritakoa, nahiz eta xedapen orokorra eman zuenaren maila bereko edo goragoko organo batenak izan.

2. Deusezak dira erregelamendu-xedapen batean ezarritakoa urratzen duten administrazio-xedapenak, eta orobat 47. artikuluan jasotako kausetakoren batean sartzen direnak.

**38. artikulua.** *Bete beharra*

Administrazio-zuzenbideari dagozkion administrazio publikoen egintzak lege honetan xedatutakoaren arabera izango dira bete beharrekoak.

**39. artikulua.** *Ondorioak*

1. Administrazio-zuzenbideari dagozkion administrazio publikoen egintzak presuntzioz baliozkotzat hartuko dira eta ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada.

2. Egintzaren eraginkortasuna geroratu egingo da egintzaren edukiak hala eskatzen badu edo jakinarazpenaren, argitalpenaren edo goragoko onespeneren mende badago.

3. Salbuespenezko moduan, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzaren baten ordezkioak direnean, eta orobat interesdunaren aldeko ondorioak dakartzatenean, betiere, batetik, egintzak eraginkortasuna izateko jarri den data berrian egitatezko baldintzak jadanik existitzen baziren, eta, bestetik, eraginkortasunak kalterik egiten ez badie beste inoren eskubide edo interes legitimoiei.

4. Administrazio publikoetako organoek bete egin behar dituzte gainerako administrazio publikoetako organoek beren eskumena baliatuz emandako arau eta egintzak, nahiz eta hierarkia-mendekotasunik ez izan haien artean edo beste administrazio batekoak izan.

5. Administrazio publiko batek, bere eskumena baliatuz, egintzaren bat eman behar badu nahitaez oinarritzat hartu behar duena beste administrazio publiko batek emandako beste bat, eta hura legez kanpokoa dela irizten badiu, administrazio horri errekerimendua egin diezaioke egintza deuseztatu edo berrius dezan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, errekerimenduari uko egiten badiote, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du. Halako kasuetan, prozedura geldieran utziko da ebazpena emateko.

#### **40. artikulua. Jakinarazpena.**

1. Administrazio-ebazpenak eta -egintzak ematen dituen organoak jakinarazi egingo dizkie beren eskubide eta interesak ukitzen dizkien interesdunei, ondorengo artikuluetan aurreikusitako moduan.

2. Jakinarazpena hamar eguneko epean egin behar da, egintza ematen den egunetik zenbatuta. Jakinarazpenean, erabakiaren testu osoa jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtso jar daitezkeen, hala badagokio, administrazio-bidean eta bide judizialean, zer organoren aurrean eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

3. Jakinarazpena egitean egintzaren testu osoa jaso arren bete gabe geratu bada aurreko zenbakian aipatutako gainerako betekizunetako bat, jakinarazpenak une honetatik izango ditu ondorioak: interesdunak jakinarazpenaren xede den ebazpen edo egintzaren edukia eta irismena zer den badakiela erakusten duen jardueraren bat egiten duenetik, edo egoki den edozein errekurtso jartzen duenetik.

4. Aurreko zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe, eta prozeduraren gehieneko epearen barruan jakinarazteko betebeharra beteta dagoela jotzearen ondorio hutsetarako, nahikoa izango da jakinarazpenak, gutxienez, ebazpenaren testu osoa izatea, eta jakinarazpena egiten saiatu direla egiaztatzea.

5. Administrazio publikoek egoki deritzoten neurriak hartu ahal izango dituzte administrazio-ebazpen eta egintzetan jasotako datu pertsonalak babesteko, interesdun bat baino gehiago denean jakinarazpenaren hartzaile.

**41. artikulua.** *Jakinarazpenak egiteko baldintza orokorrak*

**1.** Jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egingo dira, ahal dela; interesduna behartua baldin badago bide horretatik jasotzera, beti.

Aurrekoa gorabehera, bitarteko ez elektronikoz egin ditzakete administrazioek jakinarazpenak kasu hauetan:

- a) Jakinarazpena egiteko arrazoia interesduna edo haren ordezkaria erregistro-gaietako laguntzarako bulegoetan agertzea bada eta une horretan eskatzen badu komunikazio edo jakinarazpen pertsonala.
- b) Administrazio-jarduketaren eraginkortasuna ziurtatzeko beharrezkoa bada jakinarazpena egiten duen administrazioari enplegatu publiko batek zuzenean eman ez gitea jakinarazpena.

Erabiltzen den metodoa erabiltzen dela ere, jakinarazpenak baliozkoak izango dira aukera ematen badute jasota geratzeko bidali dela edo eskura jarri dela, interesdunak edo haren ordezkariak jaso duela edo hartara irispidea izan duela, data eta ordua, eduki osoa, eta bidaltzailearen eta hartzailearen identitate fidagarria. Egindako jakinarazpenaren egiaztatzea espedienteari gehituko zaio.

Jakinarazpen elektronikoa jasotzera beharturik ez dauden interesdunek noiznahi erabaki ahal izango dute, eta administrazio publikoei jakinarazi, hartarako jartzen diren eredu normalizatuen bidez, handik aurrerako jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egin daitezela edo hala egiteari utzi dakiola.

Erregelamenduz, administrazioek jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egiteko betebeharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, beren gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikokoetarako irispidea badutela eta erabil ditzaketela.

Horrez gain, interesdunak gailu elektronikoko bat edo posta elektronikoko helbide bat eman ahal izango du, zeinak balioko baitu artikulua honetan erregulatutako abisuak bidaltzeko baina ez jakinarazpenak egiteko.

**2.** Inoiz ez dira bitarteko elektronikoz egingo honako jakinarazpen hauek:

- a) Jakinarazi beharreko egintzarekin batera formatu elektronikora ezin bihurtzeko elementuren bat igorri behar denekoak.
- b) Betebehardunaren aldeko ordainketa-moduren bat daramatenak, hala nola txekueak.

**3.** Interesdunaren eskariz hasitako prozeduretan, hark eskatutako bitartekoaren bidez egingo da jakinarazpena. Jakinarazpen hori elektronikoa izango da Administrazioarekin harremana hala izateko betebeharra dagoen kasuetan.

Ezin bada eskatu bezala egin jakinarazpena, horretarako egokia den edozein lekutan egingo da, eta interesdunak edo ordezkariak jaso duela segurtatzeko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez, eta orobat egiaztatzen duena data, identitatea eta jakinarazitako egintzaren edukia.

4. Ofizioz hasitako prozeduretan, eta hasteko bakarrik, administrazio publikoek datuak eskuratu ahal izango dituzte, Estatistika Institutu Nazionalaren datu-baseetan kontsulta eginda, interesdunaren bizilekuari buruz udal-errolan jasoak dituztenetatik, toki-erakundeek bidaliak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak dioena betez.

5. Interesdunak edo haren ordezkariak uko egiten badiote administrazio-jarduketa baten jakinarazpena hartzeari, hala jasoko da espedientean, eta jakinarazteko ahaleginaren inguruabarrak eta bitartekoa zehaztuko dira. Horrekin, izapidea gauzatutzat joko da, eta prozedurak jarraitu egingo du.

6. Jakinarazpena paperean egin nahiz bitarteko elektronikoz egin, administrazio publikoek abisua bidaliko dute interesdunak eman duen gailu elektronikora edo posta elektronikoko helbidera, eta, abisu horretan, adieraziko diote jakinarazpen bat eskura jarri diotela dagokion administrazio edo erakundearen egoitza elektronikoa edo eman duen helbide elektronikoa bakarrean. Abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da.

7. Interesdunari bide batetik baino gehiagotatik egiten bazaio jakinarazpena, lehenik egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat.

#### **42. artikulua.** *Jakinarazpenak paperean egitea*

1. Paperean egiten diren jakinarazpen guztiak interesdunaren eskura jarri beharko dira jarduten ari den administrazioaren edo erakundearen egoitza elektronikoa, nahi badu haien edukia ikusteko modua izan dezan.

2. Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egiten bada eta une horretan hura ez badago, bizilekuan dagoen hamalau urtetik gorako edozein pertsonak har dezake, nor den jasota utzirik. Inor ez bada jakinarazpenaren kargu egiten, hala jasoko da espedientean, jakinarazpena egiteko ahaleginaren eguna eta ordua ere adierazirik. Beste ahalegin bat egingo da, bakarra, hurrengo hiru egunen barruan eta beste ordu batean. Lehenbiziko jakinarazpen-ahalegina hamabost orduak baino lehen egin bada, bigarren ahalegina hamabost orduak baino geroago egingo da, eta alderantziz, betiere hiru orduko tarte utzirik, gutxienez, bi ahaleginen artean. Bigarren ahaleginean ere huts egiten bada, 44. artikuluan aurreikusitako moduan jokatuko da.

3. Interesdunak egoitza elektronikoan eskuratzen badu jakinarazpenaren edukia, aukera emango zaio gainerako jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egiteko.

**13. GAIA. ADMINISTRAZIO PROZEDURA (II). 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARENARENA. ADMINISTRAZIO PROZEDURAN INTERESDUN DENAREN ESKUBIDEAK (53. ARTIKULUA). PROZEDURAREN ANTOLAMENDUA (70-74 ARTIKULUAK). EBAZPENA (87-92 ARTIKULUAK).**

**53. artikulua.** *Administrazio-prozeduran interesdun denaren eskubideak*

1. Lege honetan aurreikusitako gainerako eskubideez gain, administrazio-prozedura batean interesdun direnek honako eskubide hauek dituzte:

a) Noiznahi jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan; administrazio-isiltasunak zer esanahi duen, Administrazioak ez badu epean ebazpen espresurik ematen ez jakinarazten; zer organo den eskudun instrukziorako, hala badagokio, eta ebazpena emateko; eta zer izapide-egintza eman dituen. Eskubidea izango dute, orobat, prozeduretan jasotako agiriak eskuratzeko eta haien kopia lortzeko.

Administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoz dutenek eskubidea izango dute aurreko paragrafoan aipatzen den informazioa kontsultatzeko Administrazioaren Sarbide Puntu Nagusi Elektronikoa, zeinak sarbide-atari baten moduan funtzionatuko baitu. Prozeduretan sartutako agirien kopiak emateko Administrazioak duen betebeharra konplitutzat joko da haiek eskura jartzen direnean administrazio eskudunaren Sarbide Puntu Nagusi eElektronikoa edo dagozkion egoitza elektronikoa.

b) Prozedurak izapidetzeko ardura duten administrazio publikoetako agintari eta langileak identifikatzea.

c) Jatorrizko agiriak ez aurkeztea, non eta, salbuespenezko moduan, aplikatzekoa den araudiak ez duen kontrakoa ezartzen. Salbuespenezko moduan jatorrizko agiri bat aurkeztu behar badute, haren kopia kautotua eskuratzeko eskubidea dute.

d) Prozedurari aplikatzekoak diren arauetan eskatzen ez den datu eta agiririk ez aurkeztu behar izatea, administrazio publikoen esku badaude jada edo haiek prestatuak baldin badira.

e) Prozeduraren edozein alditan, betiere entzunaldiaren izapidea egin aurretik, alegazioak aurkeztu, ordenamendu juridikoak onartzen dituen defentsa-bideak erabili eta agiriak aurkeztea; organo eskudunak ebazpen-proposamena idaztean kontuan hartu beharrekoak, denak ere.

f) Informazioa eta aholkuak lortzea indarrean dauden xedapenen arabera proiektu, jarduketara edo eskaerak egitean bete beharreko baldintza juridiko eta teknikoei buruz.

g) Aholkulari batek lagundurik jardutea beren interesen alde egiteko komeni zaiela deritzotenean.

h) Ordainketa-betebeharrak 98.2 artikuluan aurreikusitako bitarteko elektronikoen bidez betetzea.



i) Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako eskubide guztiak.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitako eskubideez gain, zehapen-prozeduren kasuan, presuntziozko erantzuleek eskubide hauek izango dituzte:

a) Jakinarazpen batean jasotzea: zer egitate leporatzen zaien, egitate hori zer arau-hauste izan daitekeen eta zer zehapen ezar dakiekeen; orobat, instruktorea nor den, zehapena jartzeko eskumena zer agintarik duen, eta zer arauk esleitzen dion eskumen hori.

b) Administrazio-erantzukizunik ezaren presuntzioa, kontrakoa frogatu ezean.

### III. KAPITULUA

#### Prozeduraren antolamendua

##### 70. artikulua. *Administrazio-espeditentea*

1. Administrazio espeditentea agiri eta jarduketan multzo ordenatu bat da, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena.

2. Espeditenteak formatu elektronikoa izan behar du, eta haren osagai izan behar duten agiri, froga, irizpen, txosten, erabaki, jakinarazpen eta gainerako eginbideak ordenaturik batuz osatu behar da, eta barnean dituen agiri guztien aurkibide zenbakitu batekin joan behar du bidaltzen denean. Espeditentean jaso behar da, orobat, hartutako erabakiaren kopia elektronikoko ziurtatua.

3. Arau baten ondorioz espeditente elektronikoa bat bidali beharra dagoenean, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalan eta Elkarreragingarritasun Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera bidaliko da, osorik, orrialdekatu, autentifikaturik eta dituen agiri guztien aurkibide orobat orrialdekatu batez lagundurik. Aurkibide hori autentifikatzeak bermatzen du sortutako espeditente elektronikoa osorik eta aldaezin egongo dela sinatzen den unetik, eta aukera emango du behar den guztietan berreskuratzeko. Onargarria da agiri bat bera administrazio-espeditente bat baino gehiagoren parte izatea.

4. Ez da administrazio-espeditentearen parte izango informazio lagungarria edo osagarria, hala nola baita aplikazio, fitxategi eta datu-base informatikoetakoa, ohar, zirriborro, iritzi, laburpen, komunikazio eta txostenetakoa, izan txostenok barrukoak edo administrazio-organo edo erakundeen artekoak, eta orobat administrazio publikoek emandako balio-judizioak, non eta ez diren prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako txostenak, nahitaezkoak eta aukerakoak.

**71. artikulua. *Prozedura bultzatzea***

1. Prozedura, bizkortasun printzipioa zainduz, ofizioz bultzatuko da izapide guztietan, eta bitarteko elektronikoen bidez, gardentasun- eta publikotasun-printzipioak gordez.

2. Espedienteak bideratzean, antzeko izaera duten auzietan zorrotz gordeko da hasieraren arabera hurrenkera, administrazio-unitateko titularrak ez badu kontrako agindurik ematen, arrazoiturik, jasota geratzeko moduan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez betetzeak arau-hausleari diziiplina-erantzukizuna galdatzea ekarriko du, eta, hala badagokio, lanpostutik kentzeko arrazoi izango da.

3. Organo instruktore gisa izendatutako pertsonak edo, hala badagokio, funtzio hori izendatua duten administrazio-unitateen titularrak, zuzeneko erantzule izango dira prozedura izapidetzeari dagokionez, eta, bereziki, ezarritako epeak betetzeari dagokionez.

**72. artikulua. *Izapideak kontzentratzea***

1. Sinplifikatze administratiboaren printzipioarekin bat, egintza bakar batean erabakiko dira izaeragatik batera bultza daitezkeen eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak.

2. Beste organo batzuek bete beharreko izapideak eskatzean, komunikazioan adierazi behar da zer epe ezartzen duen legeak izapiderako.

**73. artikulua. *Izapideak betetzea***

1. Interesdunek bete beharreko izapideak hamar eguneko epean egin behar dira, dagokion egintza jakinarazi eta biharamunetik zenbaturik, dagokion arauak bestelako eperik ezartzen ez badu.

2. Prozeduraren edozein unetan, Administrazioak, irizten badio interesdunen egintzaren batek ez dituela betetzen behar diren baldintzak, hala jakinaraziko dio egintzaren egileari, eta hamar eguneko epea emango dio egintza hori behar bezala betetzeko.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa betetzen ez duten interesdunek dagokion izapiderako eskubidea galdu dutela joko da. Hala ere, interesdunaren jarduketa onartuko da, eta legezko ondorioak izango ditu, baldin eta epea iragantzat jotzen den ebazpena jakinarazten den eguna baino lehen edo egun horren barruan gertatzen bada.

**74. artikulua. Intzidente-arazoak**

Prozeduran sortzen diren intzidente-arazoek, are jarduketan deuseztasunari buruzkoak badira, ez dute geldieran utziko prozesua; errekusazioak, ordea, bai.

**2. atala. Ebazpena****87. artikulua. Jarduketa osagarriak**

Ebazpena eman aurretik, ebazteko eskumena duen organoak, akordio arrazoitu baten bidez, erabaki dezake prozedura ebazteko ezinbestekoak diren jarduketa osagarriak egitea. Ez dira jarduketa osagarritzat hartuko prozeduraren amaierako ebazpena eman aurre-aurreko txostenak.

Jarduketa osagarriak egiteko erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, eta amaitu ondorengo zazpi egun izango dituzte haiek egoki deritzoten alegazioak aurkezteko. Jarduketa osagarriak gehienez ere hamabost eguneko epe batean egin beharko dira. Prozedura ebazteko epea geldieran utziko da jarduketa osagarriak amaitu bitartean.

**88. artikulua. Edukia**

1. Prozedura amaitzen duen ebazpenean erabakiko dira, bai interesdunek planteatutako gai guztiak, bai prozeduratik eratorritakoak.

Lotura duten baina interesdunek planteatu ez dituzten gaiak agertzen baldin badira, organo eskudunak erabaki dezake haiei buruz, aurrez interesdunei adierazirik, gehienez ere hamabost eguneko epe batean, nahi dituzten alegazioak egin eta, hala badagokio, frogabideak aurkez ditzaten.

2. Interesdunen eskariz izapidetutako prozeduretan, interesdunak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezein kasutan ezin izango du interesdunaren hasierako egoera okerragotu, hargatik eragotzi gabe administrazioak ofizioz beste prozedura bat hasteko ahala izatea, hala badagokio.

3. Ebazpenean, erabakia jaso behar da, eta erabaki arrazoitua izan behar du 35. artikuluan aipatutako kasuetan. Horrez gain, ebazpenetan jaso behar da zer errekurtso aurkeztu daitezkeen haren aurka, zer administrazio-organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkion eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki iritzitako beste errekurtsoren bat aurkezteko aukera.

4. Interesdunak jakinarazpenetarako adierazitako modua eta lekua gorabehera, prozeduraren ebazpena elektronikoki emango da; organo eskudunaren identitatea bermatuko du ebazpenak, eta orobat bermatuko du benetakoa eta osoa dela agiria, lege honetan aurreikusitako tresnetakoren bat erabiliz formalizatua.

5. Administrazioa inoiz ezin da ebazpena eman gabe gelditu, aitzakiatzat harturik kasuan aplikatzekoak diren lege-aginduen hutsunea, iluntasuna edo murriztasuna. Hala ere, administrazioak erabaki dezake ez onartzea eskubideak aitortzeko eskaerak, eskubide horiek ez badaude aurreikusita ordenamendu juridikoan edo oinarria falta bazaie nabarmen, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 29. artikuluan jasotako eskariak egiteko eskubidea.

6. Txosten edo irizpenak onartzeak ebazpena arrazoitzeko balioko du haren testuari gehitzen zaizkionean.

7. Prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena eta ebazpena ematekoa ez direnean organo berarenek, ebazpen-proposamen bat bidali beharko dio instruktoreak ebazteko eskudun den organoari.

Zehapen-prozeduretan, ondorengo artikuluan aurreikusitako moduan jakinarazi beharko zaie ebazpen-proposamena interesdunei.

#### **89. artikulua.** Ebazpen-proposamena zehapen-prozeduretan

1. Organo eskudunak prozedura amaitzea eta jarduketak artxibatzea ebatziko du, ebazpen-proposamena formulatu beharrik gabe, prozeduraren instrukzioan agerian jartzen denean honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen dela:

- a) Arau-hauste izan litekeen egitaterik ez egotea.
- b) Egitateak ez egiaztaturik gelditzea.
- c) Frogatutako egitateak ez arau-hauste administratibo izatea, modu agerikoan.
- d) Erantzule den pertsonarik ez izatea, edo ezin identifikatu izatea, edo erantzukizunik ez dutela agertzea.
- e) Arau-haustea preskribatu dela ondorioztatzea, edozein unetan.

2. Zehapen-prozeduretan, prozeduraren instrukzioa amaitutakoan, organo instruktoreak ebazpen-proposamen bat egingo du, eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Ebazpen-proposamenean, adierazi beharko da prozedura agerian jarri dela eta zer epe dagoen alegazioak egiteko eta egoki iritzitako agiriak eta informazioak aurkezteko.

3. Ebazpen-proposamenean adieraziko da, modu arrazoituan, zer egitate ematen diren frogatutzat eta zer kalifikazio juridiko duten zehazki, zehaztuko da zer arau-hauste diren, hala badira, nor den edo diren erantzule eta zer zehapen proposatzen den, zein den egindako frogen balioespena, batez ere erabakiaren oinarri funtsezko direnena, eta behin-behineko zer neurri hartu den, hartu bada. Instrukziotik ondorioztatzen bada ez dagoela arau-hausterik edo erantzukizunik, eta ez bada baliatzen lehenengo zenbakian aurreikusitako ahalmena, hala jasoko da proposamenean.

**90. artikulua.** *Berezitasunak zehapen-prozeduren ebazpenean*

1. Zehapen-prozeduretan, aurreko bi artikuluetan aurreikusitako edukiaz gain, ebazpenean sartuko da egindako frogen balioespena, batez ere erabakiaren oinarri funtsezko direnena, zehaztuko da zer egitate diren eta, hala badagokio, nor den edo diren erantzule, zer arau-hauste egin den edo diren eta zer zehapen ezartzen den edo diren, edo, bestela, arau-hausterik edo erantzukizunik ez dagoelako adierazpena.

2. Ebazpenean ezin da onartu prozeduran erabakitakoez bestelako egitaterik, haien balioespen juridiko desberdina gorabehera. Hala ere, ebazteko eskumena duen organoak uste badu arau-haustea edo zehapena larriagoa dela ebazpen-proposamenean erabaki dena baino, erruztatuari jakinaraziko zaio hori, egoki deritzon alegazioak aurkez ditzan hamabost eguneko epean.

3. Prozedura amaitzen duen ebazpena betearaztekoa izango da haren kontrako administrazio-bideko ezein errekurtsio jartzetik ez dagoenean, eta kautela-neurriak har daitezke, hartan, betearaztekoa ez den bitartean haren eraginkortasuna bermatzeko; kautela-neurria izan daiteke behin-behineko neurriei eustea, halakorik hartu denean.

Ebazpena, betearaztekoa denean, kautelazko geldieran utz daiteke interesdunak Administrazioari adierazten badio asmoa duela administrazio-bidean irmoa den ebazpenari administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko. Kautelazko geldiera hori amaituko da:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko legez aurreikusitako epea halakorik jarri gabe amaitu denean.

b) Interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri badu:

1.a Izapide berean aurkaratutako ebazpenaren kautelazko geldiera eskatu ez denean.

2.a Organo judizialak irizpena ematen duenean eskatutako kautelazko geldieraz, hartan aurreikusitako moduan.

4. Zehatutako jokaerek kalteak edo galerak eragin badizkiete administrazioei eta kalte horiek ordaintzera bideratutako kopurua ez bada espedientean zehaztu, zenbateko hori prozedura osagarri baten bitartez erabakiko da, eta prozedura horretako ebazpena berehala betearaztekoa izango da. Prozedura hori modu itunduan amaitu daiteke, baina ez itunak ez arau-haustaileak ebazpena onartzeak ez dakarte borondatez bere erantzukizuna aitortzea. Prozeduraren ebazpenak amaitu egingo du administrazio-bidea.

**91. artikulua.** *Berezitasunak ondare-erantzukizuneko prozedurak ebaztean*

1. Behin 81.2 artikulua aipatzen duen irizpena jasotakoan, edo, irizpen hori nahitaezkoa ez denean, entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, organo eskudunak ebatzi egingo du edo akordio-proposamena igorriko dio interesdunari eta hartarako eskudun den administrazio-organuari, formalizatzeko. Ez bada egokitzat jotzen amaiera itundurako proposamena formalizatzea, ondorengo zenbakian aurreikusitako moduan ebatziko du organo eskudunak.

2. 88. artikuluan aurreikusitakoaz gainera, ondare-erantzukizunari buruzko prozeduren kasuan, ebazpenak adierazi beharra dauka kausalitate-loturarik baden edo ez den zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta eragindako kaltearen artean, eta, hala badagokio, balioespina egin behar du sortutako kalteaz, kalte-ordainaren zenbatekoaz eta ordaintzeko moduz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen 34. artikuluan hura kalkulatzeko eta ordaintzeko ezartzen diren irizpideen arabera.

3. Prozedura hasi eta sei hilabeteren buruan ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, edo akordioa formalizatu ez bada, ebazpena partikularrari kalte-ordaina ematearen aurkakoa dela jo daiteke.

**92. artikulua.** *Ondare-erantzukizuneko prozedurak ebazteko eskumena*

Estatuaren Administrazio Orokorraren esparruan, dagokion ministerioak edo Ministro Kontseiluak ebatziko ditu ondare-erantzukizuneko prozedurak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 32.3 artikulua adierazitako kasuetan edo lege batek hala xedatzen duenean.

Autonomia-erkidegoen eta toki-administrazioaren esparruan, autonomia-erkidegoetako edo toki-administrazioa osatzen duten erakundeetako dagokien organoek ebatziko dituzte ondare-erantzukizunari buruzko prozedurak.

Zuzenbide publikoko erakundeen kasuan, haien araubide juridikoa erabakitzen duten arauak ezar dezakete nori dagokion ondare-erantzukizuneko prozedurak ebaztea. Bestela, artikulua honetan aurreikusitako arauak aplikatuko dira.

**18. GAIA. BERDINTASUN POLITIKAK. PRINTZIPIO OROKORRAK ETA BABESA. POLITIKA PUBLIKOAK: ~~PRINTZIPIO OROKORRAK (3/2007 LEGE ORGANIKOA, MARTXOAREN 22KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKOA: 3-22 ARTIKULUAK)~~. EAEKO HERRI ADMINISTRAZIOEN ESPARRUKO NEURRIAK (EUSKO LEGEBILTZARRAREN 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKOA: 18-22 ARTIKULUAK).**

4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa

#### IV. KAPITULUA

##### ADMINISTRAZIOAREN ARAUDIAN ETA JARDUERAN

##### BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

**18. artikulua.**– *Xedapen orokorrak.*

1.– Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteez modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua.

2.– Artikulu honetako lehen paragrafoan xedatutakoa betetzeko, euskal herri-administrazioen mende dauden sail, erakunde autonomo edo ente publikoek lege honetako 19. artikulutik 22.era bitartean ezarritakoari jarraitu behar diote. Nolanahi ere, foru- eta toki-erakundeek, beren eskumenez baliatuz eta beren arauetan dauden berezitasun formal eta materialak aplikatuz, artikuluetan ezarritakoa erakundeok dauzkaten antolakuntza- eta eginkizun-beharretara egokitu ahal izango dute.

3.– Generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzerakoan –legeko 19. artikulua– eta ezberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzerakoan –legeko 20. artikulua–, kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunetan 3. artikuluko 1. paragrafoko azken tartekian adierazitako faktoreek daukaten eragina.

4.– Euskal herri-aginteez ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.

**19. artikulua.**– *Generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzea.*

1.– Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonen kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

2.– Eusko Jaurlaritzak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak proposatuta, arauak edo gidalerroak onetsi behar ditu, non adieraziko diren, batetik, zein izan behar diren aurreko paragrafoetan aipatzen den generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko erregelak, eta bestetik, zein administrazio-arau edo -egintza dauden aurretiazko ebaluazio hori eta ondoko artikuluetan jasotzen diren gainerako izapideak egin behar izatetik salbuetsita.

**20. artikulua.**– *Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.*

1.– Eraginaren ebaluazioa kontuan hartuta, administrazio-arau edo -egintzaren proiektuan neurriak sartuko dira, emakumeek eta gizonen kolektibo modura hartuta bizi duten egoeran neurriok izan dezaketen eragin negatiboa ahalik eta gehien neutralizatzeko, antzemandako ezberdintasunak gutxitu edo ezabatzeko eta sexu-berdintasuna sustatzeko.

2.– Egoki irizten zaien beste neurri batzuk ere hartu ahal diren arren, euskal herri-administrazioek, beren diru-laguntzak arautzen dituen araudian eta legeei buruzko kontratuetan horrela baimentzen duen kasuetan, aurkeztutako proiektu edo eskaintzan genero-ikuspegiak duen integrazioa baloratuko duen irizpide bat sartuko dute esleipenerako irizpideen artean. Kasu horietan beretan, hautagaien edo lizitatzailen gaitasun teknikoa baloratzeko irizpideen artean eta, hala badagokio, diru-laguntzen onuradunek bete behar dituzten baldintzen artean, pertsona horiek emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jarduketaren garapenean izan duten ibilbidea baloratuko da.

Orobat, kontratuen legediari eta hurrengo paragrafoan jasotakoari men eginez, kontratua betetzeko baldintzen artean esleipendunak izango duen betebeharrak bat jasoko da: obra egin edo zerbitzua ematerakoan, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea.

3.– Jaurlaritzaren Kontseiluak Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean, eta horren baliokide diren organoek gainerako herri-administrazioetan, eta, horrelakorik egon ezean, kontratuen espedientei dagokienez kontratazio-organoek, horiek finkatuko dute aurreko paragrafoko neurriak aplikatu behar zaizkien kontratazioek edo diru-laguntzek zein mota edo ezaugarri izango dituzten, ondokoak kontuan hartuta: ezargarria zaien araudia, kontratuen ezaugarriak eta kontratazio nahiz diru-laguntzetan beste politika publiko batzuk aplikatzearekin uztargarria edo bateragarria den eta zein koordinazio duen. Eusko Jaurlaritzak erregelamenduz



ezarriko ditu aurreko paragrafoan aipatutako irizpideak edo klausulak betetzen diren baloratu ahal izatea erraztuko duten adierazleak. Horien artean egon beharko dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan eta programak egin eta betearaztea, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunerako erakunde laguntzaile gisa aitortuta egotea (41. artikuluan aipatzen den moduan).

4.– Egoki ikusten diren beste neurri batzuk ere hartu ahal diren areen, enplegu publikoko lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautapen-prozesuak erregulatzen dituzten arauak honakoak izan beharko dituzte:

a) Klausula bat, administrazioaren jardueraren kidego, eskala, maila eta kategorietan emakumeei lehentasuna ematen diena, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, eta kidego, maila, eskala eta kategoria horietan emakumeak %40 baino gutxiago badira. Salbuespena izango lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenen –nolanahi ere, ezaugarriak ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik–; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Dagokion herri-administrazioaren barruan funtzio publikoaren arloan eskumena duten organoek estatistika egoki eta eguneratuak izan behar dituzte, a) idatz-zatian xedatzen dena aplikatzea posible egiteko.

b) Klausula bat, hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izango dela bermatzeko.

5.– Egoki ikusten diren beste neurri batzuk ere hartu ahal diren arren, administrazioak sustatutako edo diruz lagundutako edozein sari-mota emateko sortzen diren epaimahaiak erregulatuko dituzten arauak, eta kultura- edota arte-funtsak eskuratzeko gaitutako antzeko organoak erregulatzen dituztenek, klausula bat izango dute, hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izango dela bermatzeko.

6.– Aurreko bi paragrafoetan adierazitakoaren ondoretarako, ordezkartza orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkartza baldin badu. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkartuta daudenean izango da orekatua.

7.– Araua edo administrazio-xedapena sustatzen duen administrazioeko organoak, ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburua

lortzearren, adierazleak ezarri behar ditu, aurreko paragrafoetan aipatzen diren neurriak zenbateraino betetzen diren eta zein eraginkortasun duten ebaluatu ahal izateko.

8.– Ohiz kanpoko kasuetan soilik justifikatu ahal izango da 2, 4 eta 5. paragrafoetan xedatutakoa ez betetzea. Horretarako, gainera, txosten arrazoitua eta organo eskudunak onetsia aurkeztu beharko da.

**21. artikulua.**– *Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.*

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan prestatzen diren arau-proiektuei buruzko txostena eman behar du, lege honetako 19.etik 20.era artikuluetan xedatzen dena egoki aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, artikuluan edukiarekin lotuta dauden hobetzeko proposamenak egiteko.

**22. artikulua.**– *Azalpen-memoria eta arauaren edo egintzaren onspena.*

1.– Arau- edo xedapen-proiektuarekin batera, memoria aurkeztuko da, 19.etik 21.era arteko artikuluek diotenari jarraiki egindako izapideak zehatz azaltzeko eta horren emaitzak biltzeko.

2.– Dagokion administrazio-araua edo -egintza onetsi edo izenpetzean, aurreko paragrafoan aipatutako izapideak egin direla adierazi behar da, labur-labur bada ere.